

EGUNKARIA itxi dute, baina proiektua bizirik dago

Jexuxmari Zalakain

UPVtik kaleratutako irakaslea, Komunikazio-Zientzietan doktore

Euskaldunon Egunkaria bortizki itxi zutenean eta bere kudeatzaile nagusiak kartzelaratu eta torturatu, mundu guztiak salatu zuen epaile espai-niarraren jokabide ausarta. Guztion puntu sentikorrenean jo izan balute beza-lako erantzuna eman zitzaion euskarazko egunkari nazionalaren itxierari. Baina hasierako giroa ez zen hain bateratua izan. Beraz, artikulu honetan, *Euskaldunon Egunkaria* zenaren jaiotze-prozesuko gorabeherak eta nekeak kontatzen dira, haurdunaldi luzea bezain gatazkatsua izan baitziren sortzeko unea eta ondoko urteak. Lehenaldiko kontuek gertatu berriak izan diren gertakariak hobeto ulertzeko balioko digutelakoan idatzi dira lerro hauek, eta nondik gatozen ondo konpreni dezagun nora goazen ez ahazteko. Bide batez, itxaropenez beteta agurtzen du autoreak *Berria* egunkaria, haren oinordeko zuzena delakoan hasierako arnasa eta eragiteko hauspoa osorik gordetzen dituen neurrian, eta, modu berezi-berezian gogoratzen ditu hura posible egin duten lagunak.

Everybody condemned the brave behaviour or the Spanish judge when in a so violent way he jailed and tortured its managers. People react to this closing of the national newspaper in Basque as if they had touched their most sensitive point. Anyway the initial atmosphere was not that united, and, this article explains the beginnings of *Euskaldunon Egunkaria*, with a long and conflictive pregnancy, in order to a better understanding of the most recent reactions, to understand where we came from and not to forget where we go. At the same time, the author greets with hope the new paper *Berria*, the direct heir of *Euskaldunon Egunkaria*, the one that will keep both its first breathe and its promoter bellows, and in a very special way all the people who made possible its existence.

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan Del Olmo epaileak aginduta, *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta hamar lagun atxilotu zituen atzo Guardia Zibilak; guztiak inkomunikatuta daude Madrilén. *Egunkaria*-ren Andoaingo, Bilboko, Gasteizko eta Iruñeko egoitzak zigilatuta daude; eta diru kontuak blokatuta.

Goizeko 01:00 aldera hasi zen Auzitegi Nazionalaren 6. Aretoak agindutako operazio zabala. Lezon Xabier Alegria eta Luis Goya atxilotu zituzten. Ordu beretsuan atxilotu zituzten Joan Mari Torrealdeai eta Pello Zubiria ere. Bi horien atxiloketak bortitz eta gogorrak izan ziren, haien senideek salatu zuten. Torrealdairen Usurbilgo etxeko atea bortizki bota zuten guardia zibilek, eta emaztea eta bi haurrak aparteko gela batera pasarazi zituzten, miaketa egiten zuten bitartean.

Pello Zubiriaren Hernaniko etxean zortzi guardia zibil armatu sartu ziren. Malores Etxebarria haren emazteak adierazi zuenez, atxiloketa gogor samarra izan zen, eta ez zioten senarra ikusten utzi, botikak eta arropak eman nahi izan zizkion arren. Zubiria gaixorik dago, eta botika eta dieta bereziak behar ditu. Hori dela-eta haren emaztea kezkatu geratu da.

Ordu beretsuan atxilotu zituzten Martxelo Otamendi Tolosan, Xabier Oleaga Erreterian, Iñaki Uria Zarautzen eta Fermin Lazkano Eibarren. Txema Auzmendi Donostiako Jesuiten Etxean atxilotu zuten. Azken atxilotua Inma Gomila izan zen, Hondarribian. Urruñan bizi denez, Guardia Zibilak Lapurditik Gipuzkoara pasatu zenean atxilotu zuen, eta Oiartzunen duen lantokira eraman, miaketara.

300 bat guardia zibilek parte hartu zuten, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaian egindako miaketa eta atxiloketetan.

Atxiloketen ondotik, goizeko 03:00ak inguruan sartu ziren guardia zibilak Martin Ugalde Kultur Parkean. Pistolaz mehatxatuta, *Egunkaria*-ko atea zabalarazi zizkioten Parkeko zuzendariari. Asaltoko poliziek gelaz gela barruan inor bazen begiratu eta *Plazagune*-ko atea bertan behera bota eta gero, miaketari ekin zioten (...) *Egunkaria*-ren egoitzak ez ezik, *Jakin* eta *Argia* aldizkarien eta Ikastolen Elkartearen egoitzak ere miatu zituzten. Juan Mari Torrealdeai *Jakin*-eko zuzendaria atxilotu ondoen, 07:30etan sartu ziren guardia zibilak *Jakin*-en egoitzan, eta 11:45ak arte aritu ziren miatzen. Torrealdairen ordenagailua eraman zuten, eta hainbat dokumentu eta artxiboz betetako kutxak.

Gauza bera egin zuten *Argia*-n ere: Pello Zubiria aldizkariko langile eta *Egunkaria*-ko zuzendari izandakoa atxilotu ondoren, Lasarteko egoitzara jo zuten. Zubiriaren ordenagailua eta Xabier Letona zuzendariarena eraman zituzten, eta bestelako material ugari: atxilotuen argazkien sobreak, CDak...

Horrelaxe kontatu zuen *Egunero* egunkariaren lehen aleko kronikak¹ *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera harrigarria, euskara txukunean, eginaren eginez Estilo Liburuko arau guztiak beteta, puntuazioa bera ahanzi gabe eta kazetaritzako lehen ikasturtean ikasitako galdera gehienak kontuan hartuz —nork, zer, non, nola; “zergatik”, ordea, interpretazio-iturri lazgarri bihurturik—. Izan ere, apustu eginda ere, inork suma ez zezakeena gertatu zen 2003ko Ostegun Gizeneko ordu

1. *Egunero*, 2003-II-21.

txiekietan, Euskal Herrian euskara hutsez idatzitako kazeta nazional bakarra² suntsitua geratu zen.

Orduz geroztiko historia ezaguna da: Juan Del Olmo epaileak sei hilabeterako luzatu zuen itxiera, eta, artikulu hau idazten ari naizela, administratzaile berezia izendatu gabe jarraitzen du, oraindik kartzela-zuloan jarraitzen dute Xabier Alegriak, Xabier Oleagak eta Iñaki Uriak³, gainerako guztiak kalean baitira, diru-bermez, ala gabe. Atxilotuak irten ahala, aleka ezagutu ziren haien paraderoen berri zehatza-
goak, torturak, tratu txarrak —fisikoak zein psikologikoak—, etab.

Ezaguna bai, baina agian ez hainbeste barru-barrukoa. Hara nola kontatu zuen Tolosaldeko *Galtzaundi* aldizkariak⁴ *Euskaldunon Egunkaria*-tik *Egunero*-ra eginda-ko jauzia, etena samurrago egiteko-edo gertatutako operazioa, irakurleak gutxienez egunkaririk gabe egon ez zitezen asmatutako ekimena:

Otsailaren 20an epaileak *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxi izanak eragin handia izan du baita ere *Tolosaldean Egunero* egunkarian. Jakina da bailarako egunerokoa *Egunkaria* eta *Galtzaundi* Euskara Taldea direla sortzaileak eta bazkide nagusiak. Beraz, *Egunkaria* kaleratzen jarraitu ahal izateko modurik logikoena eta errazena *Egunero*-ren azpiegitura, mantxeta eta lege gordailua erabiltzea zen eta hala erabaki zen egun berean. Otsailaren 21ean Euskal Herri osoan zabaltzen den lehen *Egunero* kaleratu zen —salmenta eta banaketa handiz gainera, *Egunkaria*-ren kopuruak biderkatuz—. Lehen egunetan 16 orrialde zituen eta gai monografikoa *Egunkaria* beraren afera zen. Gerora orri kopurua handituz eta informazio orokorra sartzen joan da.

Eta zer gertatu zen *Tolosaldea Egunero*-koarekin? Bat-batean egoitza, ordena-gailuak eta bestelako tresnak, mantxeta eta lege gordailua egunkari nazionalak hartuta zuen eta horren aurrean —hamalau hilabete luzetan 333 zenbaki kaleratzeko egin duen bezala— herri informazioa jorratzen ahalegina egin behar zuela erabaki zen. Nola? Non? Ba *Tolosaldea Egunero*-koren beste bazkidearen —*Galtzaundi*— azpiegitura eta izena erabiliz. Halaxe hasi zen *Tolosaldean Egunero*-ko lan taldea otsailaren 20an bertan *Galtzaundiren* egoitzan herri egunerokoa egiten, bertako baliabideak erabiliz. Domino efektua martxan jarri dela esan daiteke⁵.

Beste ezerk bildu ez duen elkartasuna bildu zuen *Egunkaria*-k itxieraren biharamunetik. Kontseiluak deitutako manifestazio erraldoitik hasi⁶ eta *Egunero*-ren orrialdeetan egunez egun azaldu ziren elkartasun-adierazpenak lekuko. Hamarkadaz

2. Ez dut oso ondo ulertu zergatik errepikatu den hainbeste *Euskaldunon Egunkaria* zela euskarazko egunkari bakarra. Gutxienez geografikoki nazionala den bakarra bai, baten, baina *Tolosaldean Egunero* ere euskarazko egunkaria izan da 2002tik hona, Gipuzkoako Tolosaldea bailaran. Orain *Tolosaldean Hitza* deitzen da, nahasketarik ez sortzeko. Prentsa lokala eta nazionala bereizi nahi duenak —eta, bide batez, prentsa lokala ere nazionala izan daitekeela ikusi— irakur beza Zalakain, Jexuxmari (1994): “Prentsa nazionala eta prentsa lokala”, *Uztaro* **12**, 55-65.

3. Ostiralero elkarretarazten da jendea Donostiako Bulebarrean, haien alde.

4. Saizar, Joxemi, *Galtzaundi*, 2003-III-14, **165**, 8-9.

5. Egunkaria itxi zutenetik hilabetera, martxoaren 21ean hain zuzen, *Egunero* 32 orrialde egitera iritxi zen, *Euskaldunon Egunkaria*-ren lehen aleak beste. Tolosatik Hernanira egin zuen jauzi, Bagabiltza Hedabideak izeneko enpresak ekin zion argitaratzeari, Eneko Bidegain kazetari ipar euskal herritarra zuzendari hartuta. Artikulu hau idazteko egunetan —2003ko maiatzean— egunkari berria egiteko publizitate-kanpaina ere abian da, “Berria Berri” izenez ezagutzen dena.

6. Manifestazioa otsailaren 22an egin zen “*Egunkaria* aurrera, Bai euskarari” lemapean eta, «Donostian inoizko manifestazio handiena» izan zela zioen *Egunero*-k otsailaren 23ko zenbakian.

hamarkada euskarak berak bildu duen elkartasunaren antzekoa izan zen, edota euskal preso politikoek biltzen dutenaren gisakoa, baina, operazio horrekin estatu espainolak benetako puntu sentikorrean jo ote duen errezeloa geratu da, bestela ezin uler daiteke bazterretan sortutako aztoramendua, zalaparta eta abarrotsa. *Egin* eta *Egin Irratia* itxi zutenean ere manifestazio erraldoia egin zen 1998ko uztailean Donostian bertan, baina *Egunkaria*-ren itxierak beste zerbait erakutsi zuelakoan nago, elkartasunaren uholdea askoz ere askotarikoagoa izan baitzen, zabalagoa, bihozkorragoa; agonikoagoa era bai, agian⁷. Itxieratik lau hilabete joan direnean, kalean da beste egunkari bat; *Berria* du izena⁸. Itxitako egunkariaren aldeko elkartasun-giroa, salaketak eta adetasun-keinuak ez dira amaitu. Denborak hobeto erakutsiko duen arren, baliteke Martxelo Otamendik berak kartzelatik irten berritan esandakoa gertatu izana: «Hemen Guardia Zibilak agintzen du», denok barnera dezagun eta inork pentsa ez dezan libre dagoenik⁹.

Egin egunkari abertzalearekin gertatutakoaren antz handiegia —ikaragarria— duen arazo hau nola bukatuko den ez dakigu¹⁰, baina aipatutako elkartasun-zaparrada, eta goian esandako “puntu sentikorra” adieraziz zer esan nahi izan dudana aztertu nahiko nuke hurrengo orrialdeetan, gauzak ez baitira zergatirik gabe gertatzen. Itxiera gertatu zenean Eusko Jaurlaritzak erakutsi zuen jarrera positiboak ere azalpen bat behar du, hanka sartzeko batere beldurrik gabe esan baitezaket, Jaurlaritza bera izan dela —edo hobeto esanda, garaian garaiko kideak izan direla— *Euskaldunon Egunkaria* zenak, sortu aurretik eta jaioberritan —lehen hiru urteetan— izandako etsairik zitalena. Eta horretarako, *Euskaldunon Egunkaria* sortu aurreko hamarkada osoari errebaso egingo diot —eta sortu bitartean izandako nekeak aipatuko—, 1992an nik neuk Leioako Unibertsitatean aurkeztutako doktoretesia oinarri hartuz, eta hura ardatz harturik argitara eman nuen liburua erabiliz¹¹.

7. Xabier Salutregik ederki aipatu zuen diferentzia bat, EAJ-PNVren presentzia, alegia: «*Eginekin* manifestazio handia egin zen, EAJ-ren ordezkari bat ere izan zen, Baina *Egunkaria*-renean ez zen EAJren ordezkari bat egon, EAJ bera osorik baizik. EAJ mobilizatu egin zen» (*Egunero*, 2003-V-1).

8. *Berria* 2003ko ekainaren 21ean kaleratu du euskarazko Komunikazio Taldea SAK, eta honako hauek dira Administrazio-Kontseiluko kideak: Joxean Lizarribar lehendakaria, Juan Mari Larrarte idazkaria, Patxi Noblia, Xabier Kintana, Iñaki Dorronsoro, Pello Zabala, Joxemari Sors, Ane Agirregomezkorta eta Adolfo Arejita. Zioronak!

9. Elkartasun-adierazpenak noraino izan diren ugariak jabetzeko, *Egunero*-ren lehen 25 zenbakiak errebasatu besterik ez dago. Euskal Herrian ez da ekimen publikorik egon itxitako egunkariaren aldeko aldarri bihurtu ez denik. Adierazgarrienak, han-hemenka sorturiko eta oraindik lanean jarduten duten herri-batzordeak izan dira, jakina, eta bi milatik gora autoinkulpazio, ABk, Demoak, Zuzen eta Desobediencialariak taldeek egindako proposamenari erantzunez. Bestela nekez biltzen diren elkarteak ere bildu dira *Egunkaria*-ren itxieraren karietara: Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkarteak, adibidez. Euskal Herriatik kanpo, berriz, Katalunian sortutako elkartasuna aipatu behar da; bereziki, “Plataforma per Egunkaria”-k eragindako lana, Parlament-eraino iritsiz. Eta gainera, MIDAS Europako Hizkuntza Gutxituen Egunkariaren Elkarteak, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak, Europako Legebiltzarreko Eskubideen Batzordeak *Egunkaria* zeneko langileen eskaria tramitera hartuz, eta beste hainbeste pertsonaiak altxatu zuten ahotsa itxiera lotsagarriagatik, hala nola Robert Menart Mugarik Gabeko Kazetariak elkarteko presidentek, Aiden White Kazetarien Nazioarteko Federazioko idazkari nagusiak, ERCKo Miqel Mayol-ek Europako Legebiltzarrean, Enric Bastarde Espainiako Kazetarien sindikatuen idazkari nagusiak eta abarrek eta abarrek.

10. Itxi zutenetik bost urte joan direnean, egunkari abertzalea itxita dago, Administrazio Kontseiluko kide guztiak auzipetuta daude, ondasunak bahituta dauzkate, eta Garzón epaileak irekitako 18/98 sumarioa burututa egon arren, epaiketarik ez da egin oraino, inpunitatearen inpunitatez.

11. *Euskal prentsa herri-proiektua da* izan zen tesiaren titulua, eta Joxemi Zumalaberen oroimenez editoreak eskatutako liburua *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri-proiektua da* (Txalaparta, 1993).

1. Hasieran Euskal Prentsa izan zen

Gauza guztiek dute beren hasiera, eta zerbait garrantzizkoa baldin bada, aurreko historiarekin eten eginda sortzen da hasiera berria, bizitza pertsonalean zein kolektiboan, dela maitasun-kontuetan, dela herrien askapen-prozesuetan. Euskarazko egunkariak ere izan zuen bere prozesu propioa; beraz, bere erabakia, bere etenaldiak eta hasierako erabakiari leial izateko fideltasunak ekarritako krisialdiak. Oraingo perspektibaz ikusita —mundu oso bat irauli dela dirudi *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik, hiru hilabete baino joan ez diren arren—, erabateko eskandalua iruditzen zaigu historian izan dugun bigarren euskarazko egunkariaren suntsipena, erabat naturalizat hartzen dugu euskal mundu osoak salatu izana, eta ondoren entzun, ikusi eta irakurritako elkartasun-zaparrada guztia. Galdutako egunkaria zein inportantea zen aitor dezakegu orain, eta galera deitoratu. Baina, jakina, atsotitzak dioenez, “arrautzak ikusita, arra”. *Euskaldunon Egunkaria*-ren hasiera askoz ere mingarriagoa izan zen, eta ez soilik Joxemi Zumalaberren bizitzarekin ordaindu behar izan zuelako jaiotzeko atrebentzia —horregatik ere bai, Jainkoarren—; areago, zoritxarrez: erditze-minak ez zirelako izan berez edozein sorkuntzak dakarren ahaleginak eragindakoak, euskal erakundeetatik bertatik jotako erronka eta erasoagatik, baizik. Gauzak diren bezalakoak dira, eta horrelaxe kontatu behar zaizkie belaunaldi berriei —oroimena argala da—. Edonola ere —eta banoa harira— euskarazko egunkaria baino lehenago, Euskal Prentsa izan zen. Ideia hori gauzatzen eman zuten laurogeigarren hamarkada osoa *Argia* aldizkariaren inguruan —batik bat, ez bakarrik— bildutako kazetari militanteek eta gainerako euskaltzaleek eta —hara nola diren gauzak!—, sektorea antolatu gabe sortu behar izan zuen euskarazko egunkariak, beheko lerroetan ikusiko denez. Orain, 2003.ean, hogeitun urte lehenago bezain estrategikoa ikusten dute batzuek euskal prentsa idatziaren antolakuntza. Aipu aspergarri gehiegi egin gabe, bat bakarra emango dugu, *Jakin*-ek berak sinatutako editorial moduko batekoa:

Dena dela, beharrezkoa da sintonia hori [egunkari arpilatuaren inguruan sortutako sintoniaz ari da] “sinergia” bihurtzea, euskal egunkari zabal, bizi eta erakargarriaren bila, euskal hedabideen sare indartsuaren proiektu estrategikoaren bidetik¹².

Laurogeigarren hamarkadara itzuliz —oraina eta lehena uztartzeko asmoz—, Euskal Prentsa behingoz planifikatzea izan zen sektorean ari zirenen eskari errepikatuena, norberaren aldizkariaren interesen gainetik, eta beti ere, hori bai, euskara normalizatzeko mugimendu osoarekin batera. Hemen ere aipu bakar bat, oraingoz:

Euskal prentsaren eta euskara beraren normalizaziorako politika indartsu baten beharra legoke (...) proiektu hau euskararen normalizazioaren aldeko proiektuekin bat...¹³.

12. Jakin (2003): “Gure iritziz”, *Jakin* 135, Donostia, 12.

13. Iritzi hau bi dokumentutan irakur daiteke: *Argia*-k 1983an “Euskal Herriko Aginte Publikoei” eta 1987an “Jaurilaritzari 1987ko Txostena” izenez bidalitakoetan. Beste sei aldizkarik ere bat egin zuten *Argia*-rekin: *Aizu*, *Elhuyar*, *Idatz \$ Mintz*, *Ipurbeltz*, *Karmel*, *Larrun*, *Literatur Gazeta* eta *Susa*-k, hain justu.

2003ko maiatzaren 29an Jaurilaritzak aurkezturiko Kultura Planak ez dakit arazo horri konponbidea emango dion, behingoz. Kontua da, Euskal Prentsa egitasmoan buru-belarri eta bihotz osoz aritu zirenek printzipio baten modura bizi zutela herri-proiektu hura, maitasuna bezain esplika ezina, bestalde. Garai hartako “argiero” baten hitzetan esateko, hara Josu Landaren testu paradigmatico bat —“Euskal Prentsa, oso begi politikak dituzu” izenburu esanguratsukoa—, ahaleginean norainoko indarra jarri zuten azaldu eta hartutako erabakiaren tamaina neurtzen duena, neure ustez:

Gaur egun silogismoz arrazonatu behar duzu bai eta zergatik zaren abertzale. Edota zergatik berreuskaldundu nahi den Euskadi. Halere, esan behar da Euskal Prentsa garai batean zegoen zulotik irten eta bilakatu bada, irrazionaltasunari esker izan dela: badakizu, lainotan zaudenean batzutan begiak itxi behar dira lehenago leku horretan bertan mendia zegoela zure buruari sinestarazteko. Bada, Euskal Prentsari zenbaitetan begiak ixteko eskubidea ere ukatu nahi izan diete lojika sozialaren kalkuladoreek. Duela urte mordo bat Euskal Prentsa maite eta lantzen gaudenok zoratu idealista eta anakroniko batzu ginenean, begiak ixten jakin genuen eta horregatik zabaldu ditzakegu gaur egun bertan (lehen bezala) mendirik badagoela ziurtatzeko. Orduan prentsa elebidunaren garaia bait zen Euskal Prentsarenak egin zuen. Egokorrek berez ez du ezer lortzen, baina egoskorkeriak atzean Herri bat daukanean, herri horren arrazoiak irtenarazten ditu gauzak aurrera. Eta noski, razionalkeriaren maitaleek ezin hori konprenitu. Euskal Prentsa dogma bat da, bibentziak sortutako dogma maitagarri bat da. Euskadi bezala, amodio bezala. Euskadi, maite zaitut. Euskal Prentsa, oso begi politikak dituzu¹⁴.

Historiari atalka eta patxadaz erreparatzea komeni da, ikuspegi orokorra galdu gabe, ahal bada. Goazen, beraz.

1.1. Euskal Prentsaren fundazioa (1976)

Beraz, erabili ditudan datuen arabera, 1976an gertatu zen Euskal Prentsaren fundazioa “Euskal Kazetaritzaren Urtea” izendatu zuteneko hartan. Ez, jakina, ordura arte, eta askoz ere lehenagotik, euskarazko prentsarik existitzen ez zelako¹⁵, edo prentsan euskararik sartzen ez zutelako, ez; egon bazela nabarmena baita —zentzurik zabalenean, gutxienez Xahoren garaietatik—, baizik eta “euskal prentsa” izendapen modura ulertuta —beraz, kontzeptu eraginkor modura, “ekin-tzan mamitzen den pentsamendu modura”—, euskarazko prentsa baino dezente gehiago delako, urte hartan hasi baitzen definitzen bi hitz horiekin zer esan nahi zen eta zer eginkizun zuen “euskal prentsak”. Azkar esateko, euskal prentsa ez da inoiz izan prentsa hutsa —ez eta euskarazko egunkaria, egunkari hutsa— itxi zutenek ongi aski frogatu zuten bezala, askoren desesperaziorako. Zentzu horretan, nik ez dut erabat konpartitzen, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera euskararen kontrako eraso hutsa izan zela diotenen arrazoiketa, hori baino askoz ere gehiago izan baitzen, jakitun, euskarak euskal nazioa eraikitzen duela, eta hori, *malgré tous*, eraikuntza politikoa da bete-betean.

14. Landa, Josu: “Euskal Prentsa, oso begi politikak dituzu”, *Egin*, 1984-III-24.

15. Irakurri, besteak beste, Díaz Noci, Javier (1998): *Euskal kazetaritzaren historia*, Euskal Ikaskuntza, Donostia.

Euskarazko kazetek *Zeruko Argia*-ren ideari jarraikiz hartu zuten 1976a euskal kazetaritzaren urtetzat¹⁶. Aipatutako astekariak gaiari eskaini zion 669. zenbakiaren editoriala: «Eskolarako ez ezik, komunikabide eta administrazio lekuetarako ere balio duela euskarak irakatsi behar dugu»¹⁷. Horretarako, eta aurretik egindako urrats guztiak kontuan hartuz (sortuak ziren, adibidez, ikastolak, alfabetatze-saioak, etab), hauxe proposatu zuen: «Beste urrats bat egin behar dugu orain. Komunikabideetan sartu behar dugu euskara»; eta, ondorioz, helburu zehatz bat, ildo ondo markatzen zuena: «Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu». Arazoa ez da, beraz, euskara komunikabideetan sartzea —hori aspalditik egina zuten nazionalismo inguruko aldizkari guztiek, zenbait egunkari handik eta, Ipar Euskal Herrian, hain nazionalistak ez ziren *Eskualduna* eta *Herria* kazetek—, «euskal kazetaritza» sortzea baizik, garai hartako egoerari begiraturik, kazetaritza idatzian pentsatzen zutela ahaztu gabe. Ordurako, *Zeruko Argia*-n zebiltzanek argi samar zuten euskal kazetaritzak zer esan nahi zuen: «Euskaldunon iritzi, lan, arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu, Euskal leihatilatik munduari so egingo dion kazetaritza. Munduko berriez gure herria hezituko duen kazetaritza», hain justu. Testuinguru hartan, gainera, euskal kazetaritzaz mintzatzean, euskaraz soilik idatzitako kazetaritza zuten gogoan, gero kazetaritza elebiduna bortizki inposatu zenean «euskal ikuspegia» aipatzean ez bezala, edota nazionalista klasikoen ere beren ezina adierazteko erabiltzen zutena, gaztelaniaren premia zuritzeko¹⁸.

Marka da gero Euskal Prentsaren fundazioa data horretan ipintzea, euskaraz idazten zuen kazetari bakar batek ere bizitzeko irabazterik ez zeukanean —liberaturik ez zegoen, alegia—, kazetaritza konbentzionaletik edo normaldutik begiraturik miseria gorrian bizi zirenean euskaraz idazten zuten informazio-aldizkariak —hots, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Goiz Argi*, asko jota¹⁹—, baina, *a posteriori* begiraturik, esan dezakegu, 1976ko ospakizun xume hura ez zela denentzat kanpaina bat egiteko aukera hutsa izan; eurentzat, benetako gertakizuna izan zen. Nik nire tesian «gertakizun fundazionala» deitzen diot lehen une horri, nola edo hala geroztik etorri den euskal prentsaren aldeko mugimendu osoa puntu hartatik esekita egon baita eta baitago. Ez da harrizkeoa bertan parte hartu zutenak ere horren jabe ez izatea. Zilegi bekit anekdotatxo bat. Nire tesia defenditu nuenean, aurkezpenik behar ez duen Joan Mari Torrealde izan zen epaimahaikide, eta halaxe aitortu zuen, barru-barruan geratu zaizkidan hitzak erabiliz: «Tesian kontatzen direnak halaxe gertatu ziren, baina, gu ez ginen kontziente gertakizun fundatzaile baten parte ginenik». Orain euskarazko kazetaritzan ari diren gazteak gutxiago izango dira une haren garrantziaren jabe —nahikoa eta gehiegi dute eskatu gabe

16. Ikus, Torrealde, Joan Mari (1977): «Euskal Kazetaritza gaur eta bihar», *Euskera*, abenduko zenbakia, 59.

17. *Zeruko Argia*, 1976-I-4.

18. Zalakain, Jexuxmari (1992): *Euskal prentsa, herri-proiektua da*, doktore-tesia, non VI. kapitulua, «Katea ez da eten» izenekoa [geroko liburuan publikatu gabe geratu zena], lehen nazionalistek euskararekin eta prentsarekin izandako arazoak laburtzen diren.

19. Euskara bera ez zegoen askoz hobeto urte hartako prentsan Hego Euskal Herrian. Eguneroko prentsa erdalduna zen erabat [eta 13 egunkari argitaratzen ziren, ez pentsa!]. *Diario de Navarra*-k «Nafar izkuntzan orria» egiten zuen astero; *La Voz de España*-k egunero ateratzen zuen Ignazio Eizmendi *Basarri*-ren lan bat «Igandeko euskal orria»; *El Diario Vasco*-k igandeko ebanjelioa ematen zuen euskaraz igandero; Donostiako *Hoja de Lunes*-ek, idazlanen bat astero eta *La Gaceta del Norte*-k, hori ere ez.

gainean jarri dieten zama txukun eramatearekin, egunkari berria sortzearekin, alegia—, baina geroko hamarkada zalapartatsu osoak eta pertsona batzuek 1976an jotako erronkari emandako segidak apustu pertsonal-historiko-kolektibo baten traza du, emandako etekinei begiratuta baino antzeman ezin daitekeena, jakina, ondorioetako talaiatik begi zorrotzez behatuta, hain zuzen.

Nik dakidanez, inork ez du euskarazko prentsaren alor espezifikoa aldarrikapen orokorrik egin, erdarazko prentsaren eta elebikoaren euskaltasuna nolabait arbuatuz eta ukatuz, 1976a arte. Euskararen garrantzia (erdararen kontra) eta lehentasuna bai, hori azpimarratu da baina ez da Euskal Prentsaren eskusibotasuna goraiatu, apustu propio baten bidez. Euskal kazetaritzak 1976an eman zuen urratsa erabateko apustuaren fruitu da. Historia ez zuen bitan zatitu, baina duda barik bultzada berria emanez norabide berrirantz abiarazi zuen, abertzaletasun euskaldunaren zentzua errekuiperatuz. Gertakizun fundatzailea da, gerora prentsan sortutako ugaritasuna ulertzeko, gaur egun indar betean loratzen ari den prentsa lokala²⁰, adibidez. Apustu hark, hasiera batean indibidual hutsa izan arren eta izanagatik, gerora mugimendu zabal eta erabakitzailea sortu du. Halaber, urtean eginiko beste apustuekiko leialtasunaren emaitza izan zen, jakina, berrogeigarren hamarkadan garatutakoaren segida, hain justu.

Ez dut irakurlea nekatuko gertakizunaren filosofia sakona azaltzen²¹. Baina apustu hura norainokoa izan zen, noraino zegoen subjektibizatuta jende hura, eta zein dimentsiotan hartu zuten proiektua aurrera eramanez zutenek —nahiz eta egiten ari zirenari orduan nola deitu jakin ez— neurtzeko, hauxe utzi zuten idatzita, aurreago: “Euskal Prentsarik gabe, Euskal Herririk ez”²², urte hartako “Prentsa Euskaraz” kanpainaren barruan.

Ditxosozko “Euskal Kazetaritzaren Urte” hartan ibili zirenek argi asko eman zituzten aditzera prentsa-molde haren ezaugarriak. Eta ezaugarri horiek ez ziren labortegian mamitu, euskararekin eta prentsarekin gertatzen ari zen errealtate gordinaren arragoan, baizik. Ez ahaztu, 1976an bertan hasi zela prentsa elebidun abertzalea sortzen. Beraz, lehenik eta behin euskarazkoa izan behar du euskal prentsak:

Euskal prentsa, euskaraz (...) nork ez du ikusten erdal prentsa abertzalea bera ere euskal prentsaren kaltetan izan daitekeela (...) Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen euskal prentsak diglosia finkatzen du²³.

Ordurako, euskaraz idatzitako prentsa eta gaztelaniaz idatzitakoa etsai objektibotzat zeukaten prentsa euskalduneko militante haiek. *Egin* eta *Deia*-ren jaiotzak, eta haien euskararekiko jokabide exkaxa benetako traiziotzat hartu zuten euskal-

20. Prentsa lokalaren hasiera ere egunkariaren sorrerarekin kontrajarri nahi izan zuten batzuek, hala nola Mari Karmen Garmendiak. Gaur egun pil-pilean dagoen fenomeno hau Topagune elkartearen baturik bizi da, indarrak biderkatzeko edo. Gai honen inguruan doktore-tesiren bat edo beste ere badago UPVn (Idoia Camacho-k sinatutakoa, adibidez).

21. Gustuko duenak irakur beza Alain Badiou filosofo frantsesaren *Théorie du Sujet* [Seuil, Paris, 1982] eta *L'être et l'événement* [Seuil, Paris, 1988], edo goian aipatutako nire liburuaren VI. atala —batez ere, 145. orrialdetik aurrera— eta, gaztelaniaz, eta segurutik errazago, Nikolas Xamardo adiskide eta irakasleak berrikitan idatzitako artikuluko bat: “Una lectura diferente sobre el poder de los medios”, *Herria 2000 Eliza*, 2003, **183**, 19-27.

22. *Egin* 1980-XI-14-16.

23. *Anaitasuna*, 1976-IX [ez du egun-datarik].

tzaleek, etsipen eta lotsaz beraien abertzaletasun-nortasuna ukatzeraino eramanez. 1976tik 1978ko tartea, beraz —prentsa elebidunaren erauntsia gainean zelarik—, une ezin aproposagoa izan zen 1976an ospakizunaren berotan esandakoa egiaz sentitzen zuten ala ez frogatzeko:

Gauza jakin bat esan beharrean gaude: euskal prentsa euskaraz eginikoa da. Egun Euskal Herrian Anaitasuna eta Zeruko Argia dira bakarrik euskal prentsa hori. Gustatu ala ez baina hala da. Beste guztiak, bai egunkariak baita aldizkariak ere, Euskadin eginikoak —euskal ikuspegitik nahi baduzue— dira, baina ez euskal prentsa²⁴.

Gu biok (Zeruko Argia eta Anaitasuna) Jakin eta Herriarekin batera euskal prentsaren ordezkari bakarrak gara²⁵.

Euskal prentsaren eginkizuna ez da, ordea, euskaraz izatea eta kitto, prentsa denez, euskal prentsa garatu behar da, hori da sektore propioa: kazetaritza.

Zeruko Argiaren politika hauxe da: euskal prentsa desarroilatzea (...) egun batean euskal komunikabiderik egon dadin, oraintxetik jarri behar ditugu oinarriak (...) hordago jo digu giro honek: euskaltzale guztiok erantzun behar diogu²⁶.

Argi zeukaten eragile haiek euskal prentsa ez zela prentsa hutsa, ez eta euskarazkoa bakarrik, beste eginkizunik bazuela Euskal Prentsak, Euskal Herria eraikitzen laguntzea, hain justu:

Gaur egun klaro klaro daukaguna zera da: euskal aldizkariak ez dute antzinar bezala hizkuntza eskola soilik izan behar, ez dute bakarrik irakurlegoa euskal irakurketaz ohitu behar. Zerbait gehiago izan behar dira (...) Kazetal ikuspuntu hutsez lanegitea, helburu gisa Euskal Herriaren berreuskalduntzea, birbatzea eta burujabegoa lortzea delarik, eta hau argitalpen periodikoen muga barnean, noski²⁷.

Hau da, hizkuntza-eskolak izatetik, proiektu nazionalaren zati izatera pasatzea proposatzen zuen Tomás Trifolek testu hartan; politika-esparrura salto egin gabe, kazetaritzan. Nola edo hala kazetaritzaren autonomia galdu gabe. Ideia hau azpimarratzea interesatzen zait, urterik urte errepikatu izan baitute Euskal Prentsako ekintzaileek:

Nire ustez prentsa eta beste euskal komunikabideek proiektu nazional baten inguruan kokatu ditzakegun asmoak dira²⁸.

Hona gure urrats berria, euskal nazio aske, batu eta euskaldunaren bidean egiten duguna²⁹.

24. *Zeruko Argia*, 1978-I-15

25. *Anaitasuna*, 1978-III-1. *Jakin* ordura arte debekatuta egon zen, eta *Herria* Ipar Euskal Herrikoa da.

26. *Zeruko Argia*, 1978-VI-13

27. *Anaitasuna*, 1978-IX [egun-datarik ez dauka].

28. Zumalabe, Joxemi, *Argia/Urtekaria*, 1987, 67. or.

29. *Argia*, 1988-XI-11. Sei urteren buruan “azpiegitura porru eginda daukagu” esatetik, fotokonposaketan, inprimaketan eta informatikan, Apika informatika-etxearekin esker, egindako aurerapenak adierazteko hitzak dira, Gráficas Tamayo erosi eta “Antza” bihurtu zutenean.

Estatu espainoleko estrategek *Euskaldunon Egunkaria* suntsitu zutenean, honelaxe idatzi zuen *Jakin* aldizkariak:

Estatuko botereen aldetik aspalditxotik eta luzaroan ezarri nahi duten estrategia politiko horren helburua, azken batez, Euskal Herriaren berreraikuntza nazionalaren aldeko indar politiko eta sozialak suntsitzea eta bereziki euskararen eta euskal kulturaren aurrerabidea garatzea dela dirudi³⁰.

Hala ere, halako proiektu sendoa aurrera ateratzeko, hitzak ez dira aski, konfiantza osoa behar da, abiapuntuak apustuan eta erabakitakoaren zuzentasunean:

Zeruko Argia beti garaile irten da. Euskadi euskalduna garaile aterako delako, euskarazko komunikabideak ere garaile gertatuko dira³¹.

Nola edo hala esateko, beraz, prentsa alorreko eginkizuna —euskarazko prentsa desarroilatzea—, beste elementu batekin lotzen da —euskal herri euskaldunaren borrokarekin—, borroka politikoarekin —ez partidu-alorrekoa, baina politikoa—, alegia. Zeren konfiantza horren elementu nagusia ez baita prentsa, bere hutsean, Euskal Herri euskalduna baizik eta haren aldeko mugimendua. Beraz, Euskal Herria euskalduna den bezalaxe, euskal prentsa bakarra ere euskarazkoa izango da. Hori ez da batere ebidentea. Gertatzen zaigunari erreparatuta, ameskeria ere badirudi, baina lanean frogatu beharko da, norberaren lanak etekinak emango dituen konfiantzan dago abiapuntua eta sekretua. Eta erabaki horri eustean.

Nire ustez, 1976ko gertakizun fundatzaileak beste bi gertakizun menpekorekin du lotura, geroago gertatuko direnak, baina hasierako arnasa galdu gabe, hots, 1980an *Argia*-ren sorrera eta 1990ean *Euskaldunon Egunkaria*-rena. Gaurko perspektibarekin begiratuta, egunkari bat itxita, egunkari berria izango da 1976ko apustuaren beste kate-begia, “egunkariaren ildo nagusiei jarraituko” diela agindu baitute hangoak izandako langileek³².

Beste elementu bat aipatu nahi nuke, tamaina horretako gertakizunetan beti presente egon ohi dena: etena, alegia, egoera zehatz eta nagusi batekiko etena. Euskal Prentsak elebitasunarekin eten zuen, atzean utzi behar izan zuen elebitasun-egoera, abertzaleen artean ere nagusia izan arren, etekinik gehien emango ote zuen peskizan gehien-gehienek aukeratzen zuten bidea: elebitasuna. Argi dago Euskal Prentsa definitu zuten eragileen artean ez zegoela horretan zalantzarik, baina abertzaleek ez zuten praktikan horrela ikusi, eta bakarrik utzi zituzten eragile haiek; hizkuntza-politika “berria” eta gaur-gaurkoz ofiziala elebitasuna baita. 1976an bertan sortu ziren *Punto y Hora de Euskal Herria* eta *Garaia* aldizkariak; 1977an *Deia*, *Egin* egunkariak eta *Berriak* aldizkaria; 1979an *Ere* eta *Euzkadi* aldizkariak, eta horrela etenik gabeko sokan. Hala ere esan beharra dago, sortu

30. *Jakin* 135, 12.

31. *Zeruko Argia*, 1979-I-14.

32. *Egunero*, 2003-V-6 eta 7. «*Egunkaria* ondo egiten zela uste dugu, eta *Egunkaria*-rentzat garrantzitsua zena garrantzitsua izango da» izan dira lehendakari berriaren lehen hitzak. Eta Joan Mari Torredai lehendakari zaharrak hauxe esanaz agurtu du *Berria*: «Aurrekoari arrazoi emango dio». Hala izan bedi.

ahala desagertu zirela aldizkariak, eta bizi *Deia* bakarrik bizi dela, *Egin* bortizki hilarazi baitzuen Espainiako Gobernuak 1998an.

Arrazoizkoak ziren hedabide horiek promozionatu zituen jendearen argudioak: «Euskal Herrian bertan euskaraz ez dakien jende asko dago eta bestetik beharrezko zen euskal arazoa kanpora begira enfokatzea» (Xabier Lete)³³, edo erdara behar zela abertzaletasunaz eta euskararen premiaz jendea kontzientziatzeko, baina elebitasuna prentsan ez dela goraka joan errealitate ukazina da, gaur egun, eta ikerketa unibertsitario ugari daude horretaz³⁴.

Kontua da, Euskal Prentsa definitu zutenek —hau da, Euskal Herria euskarazkoa izango den moduan, euskal prentsak ere euskarazkoa izan behar du, eta, beraz: «burruka gaurtik, ez bihartik»³⁵, alegia— kezka handiz hartu zuten prentsa elebidunaren erauntsia. Testu batzuk aipatzearren:

Euskal prentsa euskaraz dela, aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkatzen du³⁶.

Euskal kazetaritzaren hauzia erdaraz konponduko denik ez dut uste³⁷.

Euskal kazetaritza ahultzeko eta zapuzteko bide bilakatzen den erdal aldizkarik “euskaldunena” ere ez bait daiteke onar³⁸.

Jakina, euskal prentsan ari zirenen zantzu txar guztiak bete ziren: irakurleak galdu zituzten euskarazko kazetek, erosleak ere bai (ezin dirua denetan gastatu), publizitate-puska txikiena ez zuen irabazi (merkatuaren legea lege) eta, okerreina izango zena, kazetari asko (i) prentsa elebidunera joan ziren, besteak beste *Zeruko Argia*-ko zutabe-edo zirenak: Luis Alberto Aranbarri “Amatiño” eta Mikel Atxaga, biak *Deia*-ra (profesionalizazioaren lilurak janda eta, azken finean, bizi ere bizi behar delako, eta itxurazko soldatak jasotzeko ordua omen zelako). Baina ordurako hazia botata zegoen: Euskal Prentsa ernaldurik zegoen. Ez zirudien, baina.

33. *Zeruko Argia*, 1976-VII-25.

34. Azken orduko lan batzuk aipatzearren, ikus Basterretxea Polo, Jose Inazio: “Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua”, *Uztaro* 39, 63-74 eta Zuberogoitia, Aitor: “Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean: Egin, Deia, Enbata, Ekaitza, Gara eta Le Journal du Pays Basque kazeten ikerketa eta euskara hutsezko komunikazio-esparru autozentratua trinkotzeko proposamena”, Leioa, 2003 [argitaratu gabea].

35. Luis Maria Mujika: *Anaitasuna*, 1976-IX.

36. Aitzibar, Jon [egiaz, Joan Mari Torrealdai]: *Anaitasuna*, 1976-IX.

37. *Zeruko Argia* [editoriala], 1976-II-8.

38. Amatiñok esana zen esaldi hau, prentsa elebiduna sortu zenean: «Orain arteko euskara hutsezko aldizkariak nahiko deuseztaturik eta ahuldurik geratuko lirateke (...) bertako euskarazko prentsak ez luke, agian, konpetentzia hori aguantatuko», *Zeruko Argia*, 1976-VIII-22. Kazetari horiekin batera, beste hauek ere desagertu ziren “beste” prentsara joateko: erredakzioko hirurak (Jose Luis Alustiza, Lurdes Auzmendi eta Gorka Reizabal), zuzendaria (Elixabete Garmendia), zuzendariordea (Pilar Iparragirre).

2. (1980-1990), hamarkada oso zalapartatsua

Oso hamarkada zalapartatsua eta bizia izan zen 1980koa; denetan, eta, noski, euskal prentsagintzan ere bai. Hasteko, *Zeruko Argia* nola edo hala iritsi zen 1980ra, eta *Anaitasuna* desagertu egin zen 1982an; *Goiz Argi*, berriz, elebidun bihurtu eta desagertu egin zen, hura ere. *Zeruko Argia* kaputxinoek utzi eta “*Argia kooperatiba*” bihurtu zen, eta *Anaitasuna*-ko azken belaunaldia³⁹ kooperatiba horretan sartu zen, indar-metaketa eraginkorra sortuz. Esan dezagun, beraz, 80ko hamarkada osoa *Argia*-ren hamarkada izan zela, euskalgintzarekin estu-estu konektaturik, baina euskal prentsagintzan bakar-bakarrik ibili behar izan zuena, kazetaritza-lanari utzi gabe, kontzientzia-eragile.

Kooperatiba sortuz gero ez ziren, bada, lanak amaitu *Argia*-koentzat. Hasi baino ez ziren egin, egiazki. Izan ere, hurrengo bi urteetan, ezinean kaleratu zuten aldizkaria. 1981eko azarotik 1982ko urtarrilera, irten gabe egon zen. Ez da harrizkekoa, denbora batez Joxemi Zumalabe eta Joxemari Otermin “Xalbardin” bakarrik geratu baitziren, bihotza bete proiektu; hala ere, bistan denez erabat eraginkorra suertatu zen taldea bildu zuten inguruan: Iñaki Uria, Pello Zubiria, Josu Landa, Mikel Antza eta Jon Barandiaran —eta gero beste batzuk— nor baino nor gehiago.

2.1. Egunkaria irtenbide

Euskaldunon Egunkaria-ren izaera ulertzeko, bere sorrera-prozesura jo beharra dago, orduan gertatutakoa ulertu gabe nekez jabe baikaitezke itxitako egunkariaren tamainaz. Izan ere, euskal prentsa idatziaren eremuari dagokionez⁴⁰, 80ko hamarkada osoa betetzen du euskal prentsaren premiak, eta hamarkadaren amaieran ikuskatzen zen irtenbide bakarra euskarazko egunkaria egitea zen, ametsetatik errealtate bihurtzen saiatuz. Irtenbide horretara oso gatazka-prozesu bizitik iritsi zen, non bi ildo edo adarretatik etorritako jendea gurutzatu baitzen, hots, prentsa elebiduneari ari zen jendea, alde batetik, eta euskara hutsezko prentsan ari zen jendea, bestetik.

Bi ala biek ezinean ari ziren, eta denek eskarmentu berbera zutenek, alegia, elebitasunaren bidetik euskarak ez zuela irtenbide onik prentsan —hizkuntza nagusiak jan egiten baitu euskara—, ordurako denek zuten buruan irtenbide bakarra: euskarazko egunkaria. Baina bidegurutze hartan bat egin beharrean, berriro banandu ziren bi adarrak. Bere garaian prentsa elebidunaren bidea hartu zutenek Jaurilaritzak proposatutako bideari ekin zioten —*Euskaldunon Egunkaria*-ren irtenbideari oztopoak jartzen lagunduz, *Egunero*⁴¹ deitutako proiektuari atxikiz— eta, elebitasuna gaindituz, euskarazko prentsaren apustua urtetan egina zutenek

39. Joserra Etxebarria, Laura Mintegi, Antton Azkargorta, Karmelo Landa, Josi Basterretxea, Joserra Egiluz, Kanko Ispizua, Iñaki Sáez, Iñaki Antigüedad, Joxe Mari Pastor, Joxerra Bilbao eta Idoia Jauregi.

40. Ikus-entzunezko prentsari dagokionez, besterik da, adibidez telebistaren premiari dagokionean. Ikus Torrealdei, Joan Mari (1985): *Euskal Telebista eta euskara*, Elkar, Donostia.

41. Hemen aipatzen dudana *Egunero* hau ez da *Euskaldunon Egunkaria* itxi orduko denon eskuetan ikusi dugun *Egunero* berbera. Hura, Jaurilaritzak eraginda, Jose Ramon Beloki kazetaria buru zuen taldeari eskatutako egunkari-proiektua izan zen, hainbeste kalapita sortu ondoren, kalera atera gabe geratu zena, hain zuzen ere.

—*Argia*-ren inguruan, batik bat—, berriz, euskarazko egunkariarentzat bide propioa asmatu zuten.

Bistan denez, bigarren adarreko jendeak bakarrik erdietsi zuen helburua, euskarazko egunkaria kaleratzea. *Euskaldunon Egunkaria* itxita, lehenengo bi hilabeteetan —otsailetik apirilera— prentsan agertutako eztabaidari erreparatuz, orduko bidegurutze berebean geundela zirudien⁴². Hala ere, une honetan kaleratu den egunkari berria ikusirik, bidegurutzean ez direla indarrak galdu esan beharko dugu. Edonola ere, hurrengo hilabeteetan ikusiko dugu, 2003ko uda baino lehen kaleratzeko asmoa baitu egunkari berriak⁴³, eta agian nire artikulua hau argitaratzen denerako, gauzak argiago egongo dira. Edonola ere, egunkariaren kontu hau ez da Euskal Prentsako eragileentzat etapa bat baino, benetako proiektu estrategikoa sektorea bere osotasunean kudeatzea da:

Euskarazko egunkari berria. Hamahiru urteko meritu handiko lan eta ahalegin handien fruitua kendu digute, *Egunkaria* ixtean. Poztekoa da, ordea, gizarteko sektore oso zabaletatik ez ezik, erakunde kultural, sozial, sindikal, politiko eta instituzionaletatik ere hain borondate eta “erabaki” tinko eta bateratua agertu izana, euskal egunkari berria lehenbailehen sortzekoa. “Sintonia” hori oso garrantzikoa da egunkari berriaren proiektua egin eta bideratzeko, horren ezaugarri buruz egon daitezkeen —dauden— iritzi ezberdinak gorabehera. Dena dela, beharrezkoa da sintonia hori “sinergia” bihurtzea, euskal egunkari zabal, bizi eta erakargarriaren bila, euskal hedabideen sare indartsuaren proiektu estrategikoaren bidetik⁴⁴.

2.2. Hainbat fase, helburu bakarraren bidean

Esan dugun bezala, laurogeigarren hamarkadan Euskal Prentsaren irtenbide duin bakarra egunkaria kaleratzea zela ikusten zutenek egina zuten ordurako bere bidea, eta erakunde politiko-publikoekiko bere hautua ere bai. Arlo horretan izan zen gatazkatsua hamarkada hura, guri interesatzen zaigunez, behintzat. Kontua da, *Argia*-tik eta bere inguru hurbiletik Euskal Prentsa idatzia indartzeko eginiko proposamenak ez zirela oso begi onez ikusten Eusko Jaurlaritzan. Areago, Jaurlaritzak sektoreari laguntzeko-edo hartutako erabaki guzti-guztiak Euskal Prentsa errealtate bihurtzen ari zirenen asmoen kontrakoak ziren, eta emandako urrats bakoitza proiektu orokorretik aldentzen zen. Gehiago esatera ausartuko naiz: Jaurlaritzak oztupoak jartzen zizkion Euskal Prentsa izeneko proiektuari, inoiz ez zuen sektorea taxutu nahi izan; ez, noski, euskararen kontra edota euskarazko prentsaren aurka ezer berezirik zeukatelako, naziogintza-proiektu desberdinek ere talka egingo ote zuten beldur, baizik. Proiektu haiek gaizki interpretaturik —borondateetan sartu gabe—, seguru, eta, beraz, erabaki oker eta kaltegarriak hartuz. Ikus dezagun poliki.

42. Irakurri, adibidez, ondoko artikulua hauek: Azkarate Villar, Miren, “Errautesak zimentarri”, *Egunero*, 2003-III, 6; *Euskaldunon Egunkaria*-ko langileek, “Elkarlana, independentziatik”, *Egunero*, 2003-III-9; Zalakain, Jexuxmari, “Egunkari bat euskaldunontzat”, *Gara*, 2003-III-10; Aizpurua Telleria, Xabier, “Normalizazioaren alde”, *Egunero*, 2003-III-15.

43. “Berria berri” izeneko publizitate-kanpaina kaleratu zenean, “ekainaren azkenerako” agindu zuten egunkari berria, “aurrekoaren ildotik” egina, gainera, eta Juan Mari Larrarte langileen bozerama-leak, “uda aurretik”, Billabonako Gurea antzokian egindako akzionisten bileran (2003ko maiatzaren 10ean). Datak data, inportanteena da badatorrela berria.

44. *Jakin*, “Gure iritzi”, 135, 16.

2.2.1. Eusko Jaurlaritzak, behaztopa-harri

Nik nire tesian aurrena, eta liburuan gero, honelaxe azaldu nuen arazo hau:

[Aurreko atalean aipatu elkarrizketan agertzen diren sintomek⁴⁵] zerau igertzen dute, alegia, benetazkoa zela euskararekin lotutako herri mugimenduak, hamarkada osoan esandakoa, hots, Eusko Jaurlaritzak bazuela, ukan, beste proiekturik, nahiz eta formulatu ez.

Proiektu hau, liburu honetan zehar ikusten denez, ez da, funtsean, kazetel-proiektua, politika eremuan sustraituta, areago doana baizik. Horrek eraman du Jaurlaritzak (fase bakoitzean) euskal prentsaren proiektu periodistikoa ukatzera.

Hipotesi hau bermatzeko ondoko puntuok (konstante baten parametroak) agertzen dira nabarmen asko; alegia, Jaurlaritzak ez duela inoiz bat egin nahi izan “euskal prentsa” deitzen den alorreko langileekin; urtetan saiatu dela *Argia* “euskal prentsa” horren untzi-ikurra izan denean) tratatzen (adibiderik esanguratsuena “astegunkarien” lehiatik baztertzea izanik); lehenengoz azterketa serio bat egiteko orduan ere (CIES, 1989) ez duela berea egin ordurarteko aldizkari euskaldunetatik eskatzen zitzaiona; egunkaria ateratzeko orduak jota, ohizkoa denaren kontra, ez duela irakurleko potentzialaren nahia lehentasunezko kriteriotzat jo. Hots, betiere oztopoak jarriz ibili da, azken hamarkada t´erdian zehar, funtsik bazuten arrazoiak erabili eta aitzaki bihurri bihurtuz. Egunkaria Sortzen promotorak egunkaria egiteko proiektu zehatza kaleratu ahala (1989-XII-6, Durangon), proiektu desberdinaren berri eman zuen Jaurlaritzaren Kultura Sailak. Gai honetan ere geroak erakutsi du, borondaterik gabe, irteera tratatzea zuela-duela helburu Jaurlaritzak, eta, bereziki, Kultura Sailak. Egunkariarena, beraz, unerik deigarriena izanda ere, ez da bakarria ez isolatua izan⁴⁶.

Luze samarra izan da aipua, baina ikuspegi orokorra argitzeko balioko duela-koan eman dut bere hartan. Esan beharra dago, hala ere, Jaurlaritzak —eta Jaurlaritzaren aurreko Euskadiko Kontseilu Nagusiak— hartutako jarrera ez dela izan buruzagien ezintasuna edo egonkortasuna, ez da gaizki-ulertze mailakoa izan —psikologiko-pertsonala, alegia— politikoa baizik (zentsurik sakonenean). Berdin gertatu da gatazka Hezkuntza/Kultura Kontseilu eta Saitetan Karlos Santamaria, Pedro Miguel Etxenike, Ramon Labaien, Luis Alberto Aranbarri, Martin Ugalde, Joxemari Vélez de Mendizabal, Luis Mari Bandres edo Joseba Arregi edo Iñaki Zarraoa egon, edota Josu Legarreta, Joxe Juan González de Txabarri edo Mari Karmen Garmendia. *Argia*-k ez ezik, beste hainbat herri-erakundek ere pairatu du jarrera hori, eta giro horretan zaildu behar izan dute AEKK, EHEK, UEUK eta EKBk, bereziki, eta bakoitzak bere alorrean.

Euskal Prentsari dagokionez, honako lau jokamolde erabili ditu Jaurlaritzak: ordezkapena, luzamendua, plangintzarik gabeko subentzio-politika eta (ustezko) kazetaritza-proiektu propioa, aurrez aurre. Banan-banan ikusiko ditugu, ahalik eta xumeen.

45. Iñaki Uriak eta Imanol Muruak Iñaki Zarraoari egindako elkarrizketa.

46. Zalakain, Jexuxmari (1993): *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri-proiektua da*, Txalaparta, Tafalla, 34.

Ordezkapena: hots, bizirik zegoen euskal prentsa tradizionala eta berria indartu eta egoera berrietarako prestatzen lagundu orde, erakunde autonomikoek beste zerbait bultzatzea, bere medioak sortuz eta premiazko dirua hara desbideratuz. Jaurlaritzak aukera horri eutsi zion ahal izan zuen guztietan. Politika-modu hori abian jarri zenean (1980ko hamarkadaren hasieran), euskal prentsa idatzia «gaizki eta hiltzorian»⁴⁷ zegoen (*Anaitasuna, Argia, Jakin, Herria eta Saski Naski*): «Margi-nazioan dago honen erroa, marginatua izatean, alegia»⁴⁸.

Jaurlaritzak, PNVk edo dena delakoak, Ramon Labaien Kultura-Kontseilaria zelarik, aldizkari berri-berria proposatu zuen, *Dema* izenekoa:

DEMA Euskal Herriko aldizkaririk haundiena izango da. Gratis emango da eskoletan 10-16 urtetako gazteentzat. Gainera bi tirada izango ditu. Bata bilinguea 200.000 alekoa, bestea euskara hutsean 40.000 alerekin. Aurten errebista bat sortu nahi dugu: euskaraz, frantsesez, ingelesez eta erdaraz munduko euskaldun guztientzat. Argentinan bakarrik 3.000.000 euskaldun edo euskaldunen semeak dira. Berea-rekiko hartuemanak intentsifikatu behar ditugu. Guk hemen ez dakigu hau. En fin, euskaldun hizkuntza eta problematika normalizatu behar da⁴⁹.

Hogei urte pasa ondoren, barregura ere ematen du, eman. Egia esan, ezin da sinetsi benetan ari zirenik. Eta benetan ari ez baziren, jakina, beste zerbait zuten buruan. Nire iritziz, jakina, *Argia* eta *Anaitasuna*-koei —eta inguru guztiko herri-mugimenduei— esperantza kentzea. Hala eta guztiz ere, sortu zuten aldizkaria (1981-XI-24), Joseba Intxaurrea koordinatzaile zela eta Gorka Reizabal zuzendari zituela. Jaurlaritzak osoki finantzatuta, doan banatzen zen. 260.000 ale botatzen omen zituen, horietatik 20.000 euskaraz. Iraun, berriz, gutti iraun zuen. Pare bat ale kaleratu ondoren, betiko isildu zen⁵⁰.

Dema-rena nahikoa ez, nonbait, eta beste aldizkari batzuk ere sortu zituen, HABE erakundearen babesean: HABE izenekoa (1981-XI-26an), *Habeko Mik* eta *Zutabe*, gero, eta, azkenik, *Unescoko Abistaria*. Gogor hartu zuten “intromisio” hura. Kontuan hartu, Amatiñok berak esan berri zuela «aldizkari gehiegi da Euskal Herrian»⁵¹. “Piratak etxean” izeneko artikulu sonatu batean, honela deskribatu zuen egoera Josu Landak, bere ohiko umore fina erabiliz:

Itsasuntziko kubiarta garbitzen eta fregatzen ari ginen bitartean, lainoaz babes-turik eta gure tripulazioko inor konturatu gabe, pirata-andana batek eraso egin digu eta —ezertarako denborarik eman gabe— defentsarik gabe harrapatu gaitu⁵².

Kontuak kontu, Jaurlaritzak ez zuen prentsa-alorreko apustu hura irabazterik izan —Euskal Prentsa antolatu nahirik serio zebiltzanei, min egitea bai, ordea,

47. Torrealdei, Joan Mari: *Egin*, 1980-XI-13.

48. *ibid.*

49. *Anaitasuna*, 1981-XI-30.

50. Aurkezpen-eguneko prentsa-erretzekoaren arabera, honako kide hauek zeuden kontseiluan: Alberto Etxabe (Jaurlaritzako Kirol-Zuzendaria), Iñaki Urkijo (aholkulari teknikoa), Jose Antonio Mingolarra (UPVko irakaslea), Nestor Basterretxea (eskultorea) eta Amatiño (Kulturako sailkidea), Peli Martín, Imanol Murua eta Javier Hernández, Diputazioen izenean eta Peio Aierbe Hezkuntza Kontseilariordea. Zuzendariari laguntzeko, Josetxo Lizartza eta Iñaki Elortza aipatu ziren.

51. *Egin*, 1981-XI-18. Gogor eta agudo kritikatu zizkion hitzok *Artaso* ezizenez sinatzen zuen Pello Zubiriak: “Amatiño, pasatzen ari zarete” (*Egin*, 1981-XII-4).

52. *Argia*, 1983-III-27.

dirua ezin baita denen artean itxuroso banatu—. *Habeiko Mik*, *Zutabe* eta *Albistaria* subentziorik gabe gelditu ziren 1992an, AEK-k kaleratutako *Aizu!*-k ederki hartu zion gaina HABE aldizkariari, eta, zer esan *Argia*-ri buruz?; bada, 2003ko maia-tzean egin duela bere n-garren berriztapena, eta inoiz baino aldizkari txukunagoa jartzen dutela kalean, *Euskaldunon Egunkaria* sortu zenean egindako ahalegin ikaragarria —kazetaririk ezagunenak egunkarira pasatu baitziren— kontuan hartuta. Dena dela, ordezkapen-politika deitu dugun jarrera “*Egunero*” sasi proiektua aurkeztean errepikatu zuen Jaurlaritzak, beherago ikusiko dugunez (lehen ere aipatu dugu zer bait).

Luzamendua: hots, benetan garrantzizkotzat jotzen denari atea ireki ordez, hura geroko utziz —luzatuz, beraz—, bestelako proposamenak egiten ibiltzea, konbentzimendu handirik gabe, gainera. Politika-modu hori euskarazko egunkaria-ren premia kalean zegoenean gertatu zen, alegia, agentzia baten premia lehenetsiz edo egunkariaren ordez “astegunkariak” hobetsiz, egunkariaren jaiotza-eguna luzatuz, ekidin ezin gabe.

Bi elementu horiek —albiste-agentzia eta astean behingo egunkari-itxurako aldizkariak—, euskarazko egunkari baten premia kaleratu zeneko kontuak dira —izan ere, Iparragirre eta Orain enpresek (*Deia* eta *Egin* kaleratzen zuten) hasiak ziren egunkari baten irtenbidea begitantzen—, egunkariari irtenbide egokia emateko gai ez zela —“azterketa” asko behar ziren lehenago, nonbait; “azpiegitura” prestatu beharra zegoen, egunkaria kaleratzen hasi aurretik⁵³—, konpromisozko irtenbide batzuk hartu beharrak bultzaturik Jaurlaritzak emandako urratsak. Martin Ugalderi eta Luis Maria Bandresi egokitu zitzaaien luzamendutan aritzea.

Berri-agentziari dagokionez, Leioako Kazetaritza-Fakultatean, 1984ko mar-txoan, egindako prentsaurreko batean atera zuen Martin Ugaldek agentziaren kontua, egunkaria egin aurretik, nonbait, ezinbestekoa zelakoan «kazetari-eskola eta berri-agentzia». Gasteizko La Florida Kultura-Etxean egindako beste mahai-inguru batean, zehatzago:

Hasi behar dugu pentsatzen egunkariarekin batera edo aurretik, euskal agentzia bat behar dugula (...) Agentzi honetarako aski litzateke, 10-12 itzultzaile on, eta hauek izango ziren, azken finean, euskaraz idatzitakoa mantenduko luketenak⁵⁴.

Jaurlaritza utzi ondoren ere, oso argi zeukan, nonbait, Martin Ugaldek agentzia-ren lehentasuna:

Gure herrian euskal agentzia bat sortzen ez den bitartean oso mugaturik geratzen dira euskarazko komunikabideak. Euskal egunkaria? Noski. Baina euskal agentzia behar dugu lehendabizi⁵⁵.

Etxenike Kultura Sailburuaren ordezkotako Luis Maria Bandresek ere argi samar zeukan agentziaren lehentasuna:

53. Ikus, adibidez, *Argia/Urtekaria* 1985.

54. *Egin*, 1984-IV-10.

55. *Argia/Urtekaria* 1985.

Mementu honetan, konpromiso bat hartu dugu albiste-agentzia bat egiteko, eta hori ere uste genuen baino zailagoa da; mementu honetan bost edo sei proiektu daukagu eskuartean; mota desberdinetako ideiak jaso izan ditugu eta hortik sortuko da plan bat⁵⁶.

Haizeak eman zituen asmo/uste/aitzakia horiek guztiak. Gasteizko Legebiltzarrean (1986-IX-19) euskarazko agentziaren ezina azaltzen aritu zen Bandres: bezeriaren eskasia, kostu altua, konpetitibitate eza, irizpide-ugaritasuna, eta, oro har, «planteaketa orokorrago batez» erabaki beharra. Orduko Euskadiko Ezkerrari esker, Legebiltzarrak agentzia bat sortzeko 25 milioi pezeta gorde arren, gobernuak, bere kabuz, agentzia sortu ordez, itzulpen-akordio bat egin zuen Vasco Press berri-agentzia erdaldunarekin (1987ko abenduan), lau itzultzaileko taldea sortuz, 1992an akordioa abandonatu zuten arte. Agentzia ez zen sortu, baina asmoak bere helburua bete zuten, egunkariaren premia luzamenduz atzeratzea.

“Astegunkariak” deitutako produktuei dagokienez, aurrerago joan zen asmoa, gutxienez sortu baitziren astean behingo bi egunkari: *Hemen (Egin/Orain)* eta *Eguna (Deia/Iparragirre)*. Berri-agentziaren “ezinbestekotasunetik”, egunkari itxurako aldizkarietara pasatu zen, egunkaria, etortzekotan, gradualtasunaren hipotesitik etorri beharko zelakoan. Ez bata, ez bestea: berri-agentzia sortu gabe jaito zen *Euskaldunon Egunkaria* 1990ean, eta “astegunkariak” egin zituzten enpresetatik at: enpresa berria sortuz.

Astegunkari baten jabe egiteko lasterketa 1986ko uztailaren 24an hasi zen, «astean behin euskarazko egunkari bat» egiteko aukera *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* (EAEko BOEn) argitaratuta. Iparragirre eta Orain SAek proiektu bana aurkeztu zuten (*Eguna*, Amatiño koordinatzaile zuela, eta *Hemen*, Joxean Agirre koordinatzaile zuela, hurrenez hurren); *Argia*-k ere aurkeztu zuen bat, baina atzera bota zioten, uztailleko Aginduan agertzen ez zen baldintza baten aitzakia ezarriz: «proiektuak egunkari baten estrukturan integratuta egon behar duelako»⁵⁷, alegia. Artikulu honetan bestelako zertzeladak alboratuko ditudan arren, honelaxe idatzi nuen neronek aipatutako liburuan:

Edozein delarik ere interpretazioa hauxe gelditzen da, alegia, Jaurilaritzak ez zuela apusturik egiten euskarazko prentsaren alde. Bazterrean gelditu zen bakarra, euskara hutsezko aldizkari bat izan zen [*Argia*]. Nahiago zuen, gehiago fidatzen zen Jaurilaritza egitura elebiduna zuten enprekin (ala erdara hutsezkoekin, ez baitzegien printzipio ukatzailerik ordurarte erdara hutsean editatzen ari ziren egunkarienezat)⁵⁸.

«Bihar-etzi egunkari-egunkariak lortzeko lehen pauso bat baino ez da»⁵⁹, adierazi zuen Josu Legarretak bi “astegunkariak” kaleratu zirenean. Luis Mari Bandres Kontseilariak “esperimentalak”⁶⁰ iritzi zion erabakiari, eta horretan ados zeuden Mikel Atxaga eta Aranbarri “Amatiño” *Eguna*-koak⁶¹. *Hemen*-eko Joxean

56. Ibid.

57. *Argia/Urtekarria* 1986.

58. Zalakain, Jexuxmari aipatutako liburua, 58.or.

59. *Deia*, 1986-IX-11.

60. *Egin*, 1986-IX-19.

61. *Argia/Urtekarria* 1987 eta *Eguna* 1988-I-20, hurrenez hurren.

Agirrek ez zeukan hain argi, astegunkariaren bidetik, pausoka egunkarira irits zitekeenik, izan ere Orain SAk astean bi aldiz egiteko dirua eskatu zuenean, kolorea sartzeko baino ez baitzion eman⁶². *Argia*-koak, jakina, sutan zeuden, arrazoi osoz, “astegunkarietako” proiektutik at jartzeaz gain, subentzioetatik zetorkion diru-kopurua gutxitu baitzioten, astean behingo produktuen mesedetan⁶³.

Errealitateak ez du zalantzarik uzten: astegunkariak 1990ean itzali ziren, sortu ziren bezalaxe: Jaurlaritzak subentzinoa kendu zietenean; pauso berria eman gabe, gainera, agindu zutenaren kontra.

Beraz, astegunkarien esperientziatik, maila pertsonalean lort zitekeenaz alde batera, ondoko konklusioak atera ditzakegu: hasitako bidea etenik geratu zela, batetik urratsen segida inon ez zegoelako diseinatuta, hau da, plangintza zehaztetik kanpo hartu erabakia izan zelako; bestetik, nolana ere, astean behingo esperientziatik —aberatsa izan arren— ezin daitekeelako jauzirik egin egunerokotasunean zer gerta daitekeen asmatzeko. Erabat diferenteak dira astekarien funtzioa eta egunkariarena. Dena dela egunkariaren kaleratzea atzeratzea lortuta zegoen. Hori bai! Luzamendu politikak emana zuen berea⁶⁴.

Plangintzarik gabeko subentzio-politika: hots, diruz lagundu arren, helburu eta proiektu jakin baten arabera sektorea ez planifikatzea, eta, beraz, emandako dirua, arbitrario samarra izatea. Jaurlaritzak ez die inoiz euskarazko aldizkarietako dirua ukatu, gutxi edo asko izan; baina, aldi berean, subentzio-politika irizpide argirik gabe egin zen laurogeigarren hamarkadan, eta sektoreko aldizkarietako behin eta berriro eskatu arren, idatziz eta kalean, plangintzarik ez zuen gauzatu Kultura Sailak. Beraz, proiekturik gabeko diru-laguntza eman zien Jaurlaritzak, gero eta ugariago ziren aldizkarietako⁶⁵.

Ez naiz alderdi hau xehatzen luzatuko. Baina esan beharra dago, plangintzaren premia eta eskea hamarkada osoaren leloa izan zela, bai kazetari-lanetan ari zirenen partetik, bai eta mugimendu euskaltzale osoaren partetik, batez ere EKB sortu zenetik (Bergara, 1983-III-12). Lehen ere aipatu ditut *Argia*-tik Jaurlaritzara eta alderantziz ibilitako testuak. Euskal prentsaren aldeko erreibindikazioa eta euskararen normalizazioaren aldekoa eskuz esku eta batera ibili zirela frogatzeko, aski izan bedi datu hau, alegia, 1980ko apiriletik ekainera bitartean bost manifestazio nazional egin ziren Hego Euskal Herrian, eta, gerora, urtero pare bat bai. Euskal Prentsa eta euskararen normalizazioa eta plangintza orokorraren premia batera ibili ziren beti. Nahiko alferrik aritu ziren euskal kazetaritzan ari zirenak demostratu nahirik Jaurlaritzak ematen ziren diru-kopuruari ateratzen zioten etekina egundokoa zela, baina “plangintza sendorik gabe” eta “proiektu orokorragorik gabe” dena hutsean geratuko zela.

62. *Argia*, 1987-X-25.

63. *Argia*, 1986-XI-16.

64. Zalakain, Jexuxmari aiaputako liburua, 61.or.

65. Laurogeigarren hamarkadaren hasieran *Argia* eta *Anaitasuna* ia bakarrik ibili ziren arren, beste aldizkari batzuk sortu ziren berehala: kultura-aldizkariak, literatura-aldizkariak, etab. Berriemailetan, ordea, *Argia* bakarrik ibili zen, eta bakarrik gairitu zuen hamarkadaren langa, guztiok dakigun arrakastarekin, gainera. *Astegunkarien* kompetentzia bera duintasunez gairitu zuen gaur egun Euskal Herrian euskal prentsaren dekanoa denak.

Kontuak kontu, eskariak eskari, eta agiriak agiri, agintari autonomikoek ez dute inoiz premiazko planifikaziorik egin; seguru aski, proiekturik ez dutelako eduki. Baina artikulua hau *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiaren harira egiten ari naizela, biziki interesatzen zait hemen azpimarratzea, hainbeste nekez Euskal Prentsa txukuna egiteko ahaleginean ibili zirenek ez zutela arazoa konponduta ikusten egunkari bat egitearekin:

(...) geuk, berriz, euskal prentsaren errealitatea, iragana eta esperantza, egunkari bakar batetara mugatzea, desbideraketarik arriskutsuenetako bat dela deritzogu⁶⁶.

Eta Joxemi Zumalabek, urte batzuk geroago:

(...) egun urrats handiena euskal egunkaria(k) izango litzateke. Horretatik ezin da ondorizatu orain artekoak guttietsi behar direnik. Euskararen normalizaziorako bidean plangintza orokorra behar da, lehenetsunez bai, baina tajuz zaindu behar dira alor eta atal guztiak. Ganora gabe hartzen da euskal aldizkarigintza⁶⁷.

Indar gehiagoz, zehatzago 1987ko *Argiaren Urtekaria*-n:

(...) euskal prentsa ametsak oraindik pendienteak ditu (...) amets politenak pendiente daude. Betetzeko dagoen ametsa garbi dago prentsa aldetik helburua egunkaria dela, hori izango da hurrengo urratsa [baina ez isolaturik, eremu jakin batean txertaturik baizik]. Nire ustez prentsa eta beste euskal komunikabideek proiektu nazional baten inguruan kokatu ditzakegun asmoak dira (...) politika zehatz bat diseinatu, prentsarekin helburuak ondo markatu, parte bakoitzak bere lekua gordez eta nolabait erdararen artean konpetitibo izateko jarri behar diren bitartekoak sortu. Bienbitartean, daudenak indartu, konpetentzia hori egin dezaten⁶⁸.

Nola diren gauzak, *Euskaldunon Egunkaria* kalean, 1992-VII-3an HB-EuE-EA bat eginik 50 milioi lortu zirenean Gipuzkoako Batzar Nagusietatik —ia bi urte beranduago—; EAJren eledun Maria Jesus Aranburuk plangintzarik gabeko dirua zela argudiatu zuen, laguntza ukatzeko⁶⁹. Urte asko joan dira, *Euskaldunon Egunkaria* modu lotsagarrian lapurtu digute, berria sortzear dago, baina Euskal Prentsa (idatzia) “proiektu nazional” baten arabera planifikatu gabe dago; halarik ere, subentzioak ez dira falta, eskas izan arren.

(Ustezko) kazetaritza-proiektu propioa: Hau da, herri-iniziatibak euskarazko egunkari bat egiteko proiektua aurkezturik, bereak eta bost egitea proiektua ekiditeko: zailtasunak lehenetsiz, trabak soilik aurkeztuz, eragileen kontrako susmoak barreiatuz, eta, azkenik, diru publikoz ordaindutako beste proiektu baten agindua haizaratuz. Nire inpresioa da *Egunero* izenez ezagutu zen eta hutsean geratutako proiektu hura behaztopa-harria baino ez zela izan, Egunkaria Sortzen promotorako jendeak atzera egingo ote zuen esperantzaz puztua. Behean xeheago emango dudanez, bego horrela oraingoz.

66. *Argia*-k 1983ko udazkenean idatzi zituen lau editorialetan errepikatutako iritzia da hau.

67. *Egin*, 1987-XII-21.

68. *Argia Urtekaria 1987*, 251-52.

69. Aranburu Orbegozo, Maria Jesus, “Cinuenta millones para Egunkaria”, *Diario Vasco*, 1992-VII-4.

3. Oztopoak oztopo, egunkari baten bila

Esan dut gorago, Espainiako Entzutegi Nazionaleko Juan Del Olmo epaileak itxi zuen egunkaria —edo besteren bat— sortzeko premiara bi bidetatik edo bi errekastotatik hurbildu zela jendea: prentsa elebidun abertzaleak euskararen alde deus gutxi egin zezakeela ondotox konprobatuta —porrotaren bidetik, alegia—, eta Euskal Prentsa euskara hutsezkoa zela uste izan eta demostratzeko lanean jarri zirenen bidetik —erabakiaren bidetik, hain justu—. Eta aipatu dut, baita ere, nolako egunkaria egin hautatzean, berriro banandu zirela protagonistak: porrotaren bidekoak Jaurilaritzak agindutako (ustezko) proiektuaren aldamenen lerratu ziren, eta erabakiaren bidekoek, berriz, aurrera atera zuten egunkaria.

Zaharra izan da euskaltzaleen artean egunkari baten premiari buruzko eztabaida. Nik atal oso bat eskaini nion nire liburuan, VI.a, eta irakurri nahi duenak hantxe dauzka datuak ugari. Mendearen hasieran badira premia horren lehenengo zantzuak eta islak —*Diario de Navarra*-n (Agerrek), *Gipuzkoarra*-n (Kizkitza-Olak), eta *Euskal Esnalea*-n (Ormetsek, Arbelaitzek)—. Jurgi Kintana historialariak *Egunero*-n⁷⁰ agertu digu Euskaltzaindiak, edo gutxienez Azkuek, izan zuela egunkaria egiteko asmoa. Piarres Xarritonek ere aipatu zuen zerbait, Azkueren eta Broussainen arteko gutunen berri ematean⁷¹. Lizardiren asmo ederra (1927-30) etorri zen gero, “Aitzol” Ariztimuñorekin izandako eztabaida esanguratsua. Eztabaida guztia hona aldatzea gehiegizkoa denez, gogoeta bat bederen: orduko nazionalistak ez ziren ausartu euskarazko egunkari bat egiten —arrazoiak, gero egunkaria (ez) egiteko eman zituzten berberak— eta, aldiz, *El Día* izeneko erdal-duna argitaratu zuten Donostian (dirua eta azpiegitura bazela demostratuz, baina apustu jatorrik ez; konfiantzarik ez, agian). Eta azkenik, gerra garaian, eusko gudariak frontetik —kondizio objektiborik txarretan, baina ilusio eta konfiantza sendoz horniturik— atera zuten historiako lehen euskarazko egunkaria, *Eguna* (1937-I/VI).

Mendeko lauogeigarren hamarkada arte ez zen gaia berpiztu, ezagutzen ditugun ondorioekin. Baina hemen apurtxo bat geratzea merezi du. Euskarazko egunkariaren premia Mikel Atxagak jarri zuen mahai gainean arrakastaz⁷², izan ere luzea izan baitzen handik eratorritako eztabaida-giroa.

Aurreko hamarkadan —gogoratu, euskaltzale-abertzale batzuek Euskal Prentsa euskaraz zela deliberatu zutenean— inortxok ere ez zuen ikusten euskarazko egunkaria posible zenik; ez Torrealdai: «Goiz da egunkari batentzako. Zoritxarrez goiz»⁷³; ez Amatiñok: «Oraingoz bentako taxuzko egunkaria ez da posible Euskal Herrian»⁷⁴; ez Mikel Atxagak: «Astekariaren orduak jo digu (...) ea

70. Kintana, Jurgi (2003): “Euskaltzaindia eta euskarazko egunkaria”, *Egunero*, 2003-IV-17.

71. Charriton, P (1986). Iker-4, *Euskaltzaindia*, Bilbo, 326.

72. Nik ditudan datuen arabera, horretan ere aitzindari izan zen Joxerra Etxebarria adiskidea, hone-lai idatzi baitzuen *Egin* egunkariak argitaratzen zuen *Egunon* euskarazko gehigarrian: «Azken helburua Euskal Herriko gizarte euskalduna delarik, tartean ez da helburu makala euskarazko egunkari osoa lortzea. Lorbidean gabiltzala sinetsi gura nuke. Sinesten dut ze demontre!» (*Egin*, “Egin dezagun euskal prentsa”, 1982-IX-1).

73. Torrealdai, Joan Mari (1977): “Euskal kazetaritza gaur eta bihar” *Euskera*, XXII, 61.

74. *Zeruko Argia*, 1976-I-1.

bidebatez, euskal egunkari bat egiteko urratsa eman behar dugu»⁷⁵; ez *Zeruko Argiak*ok: «...egunkari bat ateratzeko goizegi dela uste dugu»⁷⁶; ez Jose Ramon Belokik: «...mentu honetan ez luke mereziko euskara hutsezko kazetarik sortzerik»⁷⁷.

Inork ez zuen ikusten, baina zurrumurrua edonon zabaldua zegoen: *Goiz Argi* aldizkariaren inguruko jendeak —*Euskarazaleak* elkarteko kideek, hau da, gaur egun *Euskarazaintza* inguruan dabiltzanen aurrekoek— euskarazko egunkari bat egingo ote zuen zabaldu zuten, “Aritz” elkartea sortuta (Manu Oñatibia eta Joxe Murua buru zirela) eta Santiago Aizarna zuzendari hartuta, baina hutsean geratu zen. Dirua zeukatenek —Xabin Zubirik eta abarrek— nahiago izan zuten *Deia* ateratzea⁷⁸.

Euskal Kazetaritzaren Urtea (1976) bizi-bizi antolatu eta bazterrak nahasi ondoren sortutako egunkari eta aldizkari elebidunek —diglosikoen, hobeto esanda— berehala ekarri zuten etsipena euskaltzaleen artean. Hedabide haiek ez ziren kapaz izan euskarari gero eta leku gehiago emateko, sortzean esan zuten moduan, eta kexuak asko eta asko izan ziren. Jendea haserre zen.

(...) euskarari espazio gutxi eman diote. Elebidunak izateko beren jokabidea ez da minimoetara ere ailegatu. (...) Ale gehienetan %10era ere ez⁷⁹.

Jendea haserre zen, eta, agian horregatik, euskarazko aldizkari umorezko ugari sortu ziren ondoko urteetan (*Euskadi Sioux*, *Araba Saudita*, *Pott* seriea, *Oh Euzkadi*). Txillardegik teorizatu zuen ondoen elebitasunaren aitzakian euskarak prentsan ere pairatzen zuen mendekotasuna, Lluís V. Aracil-ek diglosiari buruz zeukan pentsamendua gure artan hedatuz. Euskal Herrian Euskaraz elkartea sortu zenean (Durango, 1979-XI-4), lelo horrekin etorri zen plazara: «Honela Euskara heriotzara doakigu. Euskaldunok orain bi urte demokrazian eta indar abertzaleengan ipinitako itzaropena, diglosiaren egia gordinean amaitu da».

Haserre horren uhinean, Euskal Prentsak aprobetxatu egin zuen egoera, eta *Anaitasuna*-k eta *Zeruko Argia*-k “Euskarazko prentsaren *Deia*” izeneko editoriala idatzi zuten elkarrekin:

Ezin onar dezakegu erdal komunikabideen eraginez eta prezioen goratzeaz gure euskal prentsa hiltorian aurkitzea (ezen) gure hizkuntzak eta kulturak pairatzen duten botere publikoaren aldetik zapalketa izanik, euskal kultura birrindu zutenek euskararen herri osoarekin obligazioa dute gure aurrean⁸⁰.

Etsipenaren esperientzia aukera berri bat izan zen Euskal Prentsa indartzeko, bai prentsa elebidunaren esperientzia pertsonal etsigarria egin zutenentzat, bai eta euskarazko kazetaritzaren apustu historikoa egin zutenentzat ere. Mikel Atxagak

75. Atxaga, Mikel (1977): “Komunikabideen beharra”, *Euskera*, XXII, 57.

76. *Zeruko Argia*, 1976-XIII-22.

77. *Zeruko Argia*, 1976-II-15.

78. Zalakain, Jexuxmari (1993): *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri-proiektua da*, Txalaparta, Tafalla, 92-94.

79. Siadeco, “Estudio Sociolingüístico del euskara, IIª parte. El euskara en las editoriales y revistas”, 1977, 130.

80. *Argia-Anaitasuna*, “Euskarazko prentsaren *Deia*”, 1979-VI-15

Deia-n bizi izandako porrota ezagutu ondoren eta beste hedabide elebidunena ikusirik, «euskarazko egunkari bat ateratzeko ordua da» esaten hasi zenean 1983an, beste inork ez zuen entzuten orduaren kanpaia, ez eta euskarak jotako “hordagoa” ere: ez Torrealdaik, ez Amatiñok, ez eta *Argia*-koek ere. Hala ere, *Egin*-ek eta gero *Deia*-k berehala eman zuten jakitera bazutela euskarazko egunkari bana egiteko proiektua. Geroztik, eztabaidak ez zuen etenik izan 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* sortu arte. Sortu, ordea, euskarazko egunkaria ez zen sortu elebitasunaren porrotaren bidetik —handik eztabaida piztu zen—; sortu, erabakiaren bidetik sortu zen, nola ez!

1980an kooperatiba sortu zutenetik, beste kezka bat zuten *Argia*-koek (eta *Argia*-koak ez ziren beste batzuek, jakina): «Euskal prentsa osoa babestu behar da, beraz lege bat behar da»⁸¹, zioten, eta erabateko mesfidantzaz hartu zuten prentsa elebidunak euskarazko egunkariari egiteko omen zuen aldarria, eta lau editorialetan zehaztu zuten, 1983ko udazkenean. Ondoko zati hauetan ageri da orduko planteamendua: euskal prentsa osoa babesteaz gain, herri-mugimenduari eta instituzioei dagokien lekua markatzea. Eta hori, jakina, funtsezko bilakatu zen *Euskaldunon Egunkaria* izango zena egoki taxutzeko eta, isildu ondoren, egunkari berriaren ardatzak finkatzeko. Irakurri ondo, hari luzea dauka-eta instituzioekiko aferak.

(...) hainbat urtez Anaitasunak bere hiltzoritik eta Argiak bere asteroko presentziaz euskal prentsaren izateko eskubidea errebindikatzen pasa ondoren oihartzun faltak etsiturik gintuenean hara non aurtan, bazter guztietatik astintzen eta buruz gora ipintzen hasi bait da egunkariaren asunto horrek⁸².

(...) bide bakar hori [egunkariarena, alegia] aldarrikatzen duten ia guziak frustratitioz datoz, hau da, euskara prentsan sartzeko nolabaiteko saioa egin ondoren ustel irten dien horietako batetatik. Hala nola, egunkari eta aldizkari diglosikoetatik. Egia da guztiok sufritu dugula egunkari eta aldizkari diglosikoetan euskarari emandako tratamenduak sortutako frustrazio hori, baina guztiok dakigu frustrazioa ez dela abiapunturik onena edozein korapilori irtenbide jator bat topatzeko orduan⁸³.

Ez da aski egunkari baten proiektuarekin aurrera jotzea; gure abururako egunkari hori aurrera ateratzen ematen diren bitarteko berdinak eskeini behar zaizkie martxan dauden edo eginkizun leudeken beste medio edo prentsabide guztiei (...); normatiba bat, (behar da) beraz, daudenak eta egon daitezkeenak kubrituko ditue-^{na}⁸⁴.

(...) geuk, berriz, euskal prentsaren errealitatea, iragana eta esperantza, egunkari bakar batetara mugatzea, desbideraketarik arriskutsuenetako bat dela, deritzogu (...) medio horrekiko frustrazioa eta dezepzioa gertatzea ez bait litzateke oso harriztekoa eta orduan bai etorkizunerako ate guztiak betiko hertsirik iraungo luketela (...) horrelako bluf puntualak jendea inpresionatzeko balio dezakete baina ez bidean modu egokian prentsa aurrera joateko⁸⁵.

(...) euskarazko egunkari bakarra izan behar duela mito izugarria da (...) Inork ez dezala pentsa egunkari batek besterik ezin duela egon; ez dago pentsatzerik

81. *Argia*, 1983-IX-25.

82. *Argia*, 1983-X-2.

83. *Argia*, 1983-X-9.

84. *Argia*, 1983-IX-25.

85. *Argia*, 1983-X-9.

sektore politiko guztiekin ados joango den bat bakarra egin daitekeenik. Alkimia ez bait da aski kasu hauetan (...) Egia aitortzeko, euskal egunkarirako merkatu oso txikia dagoela esatea ondo dago eta arrazoinezkoa da gainera, baina linea ideologiko bateratsu eta zabal batek merkatu zabalagorik ekarriko lukeela esatea gehiegitxo esatea da: Zabaltasunaren mitoa hautsi beharra dago. Zaila da demostratzea egunkari bakar batekin indar handiagoa emango liokeela euskarari bat baino gehiago egoteko posibilitatea zabalduz baino (...) guk uste dugu euskararen bilakaera eta normalizazioa behar duela izan gure iparraldea⁸⁶.

(...) euskal prentsaren edozein proiektu aurrera eramateko orduan, noraino den komenigarria gaur egun Euskal Herrian dauden instituzioetako batek inizatiba edota pisu nagusia eramatea, planteiatzen da (...) Lehenik, printzipiotzat jo behar da, euskal kulturaren barruan (eta kontutan hartuz zeintzu diren kultura hori mugatzen duten kondizioak) herriaren inizatibarako lekua geratzen den neurria hura bultzatu eta eragitera mugatu behar duela instituzio publiko batek bere eginbeharra (horretarako territorialitatea, kontrol ideologikoak ekidin beharra, kontinuitatea bermatzea legisla- zioaren bidez aipatuz)⁸⁷.

(...) dagoenari eustea ikasi ez dutenean egunkariarena planteiatu den bezala planteiatzea harritzekoa da⁸⁸.

Ez da dena mesfidantza, ordea, lan propioarekiko konfiantza ere badago editorial horietan:

(...) herri sektore militanteen inizatiba ahalmenean sinisten dugulako (edo egu- nero gure medioan frogatzen dugulako, hobeto esanda), eta instituzio bidezko prota- gonismoan ez dugulako epe luzerako garantia askirik ikusten⁸⁹.

Arazo horiei denei —eta beste batzuei— jator asko erantzun zien Egunkaria Sortzen-ek 1990eko hamarkadaren hasieran, beherago ikusiko dugunez.

3.1. Eztabaidarik eztabaida, posizioak hartzen

1983an jarri zen, beraz, mahai ganean, euskarazko egunkari baten —edo gehiagoren— premia. Handik sortutako eztabaidak 1990era bitartean iraun zuen, eta berehala markatu ziren posizioak: prentsa elebidunetik zetorren jendea instituzio autonomikoek egin behar omen zuten egunkariaren alde lerratu zen azkenean, eta egunkari bat egiteak zeuzkan arazoak azpimarratu zituen. Euskal Prentsa errealitatean mamitzeko eskarmentutik zetozenek, berriz, erabakia hartzearen garrantzia eta herri-inizatiba hartzearena azpimarratu zuten. Nire libu- ruan aipu asko daude —idatzi ziren iritzi guztiak daude bilduta— eta ez ditugu hemen errepikatuko. Funtsezko arrazoietara mugatuko naiz.

Mikel Atxagak sei artikulua bota zituen⁹⁰, eta honako elementuak proposatu zituen balizko egunkaria sortzeko: instituzio autonomikoek egingo dute; egunkari

86. *Argia*, 1983-X-16.

87. *Argia*, 1983-IX-25.

88. *Argia*, 1983-X-9.

89. *Argia*, 1983-X-2.

90. “Euskarazko egunkariaren arriskuak” (*Deia*, 1983-X-10), “Euskarazko egunkariaren jirabiran” (*Deia*, 1983-XII-14), “Euskarazko egunkariaren nagusiaren baimenik gabe” (*Deia*, 1984-I-13), “Kontrarioak gabe” (*Deia*, 1984-I-179), “Liberaltasunik gabe ezinezkoa da euskarazko egunkaria” (*Deia*, 1984-I-18), [seigarrenaren titulua ez daukat eskura] (*Deia*, 1984-II-4).

bakarra izango da (kazetari gutxiegi omen zirelako bat baino gehiago egiteko⁹¹), zabala, Administrazioak diruz kontrolatua eta pausoka, alegia, urtebeteko proba egin ondoren-edo, egunkari bat egiteko gaitasuna frogatzeko; diru publikoz laguntzea ezinbestekoa izango du, baina Jaurlaritzak ez dio bere sokakoa ez den edonori dirua emango; goizean argitaratzea komeni da, ez arratsaldean.

Ideia horiek denak ez zituen Atxagak bere kaskotik atera eta bota, baizik eta euskarako egunkaria egiteko aukera zabaldu zutelako Orain eta Iparragirre enpresek, eta, beraz, sekulako eztabaida-giroa sortu zelako bazterretan, gaia behin eta berriro astinduz. *Egin* kaleratu zuen enpresak (Orain SA) eta *Deia* kaleratzen zuenak/duenak (Iparragirre SA), egunkari bana egiteko asmoa kaleratu zuten⁹², baina nik behintzat ez dut inon proiektu idatzirik eskuratzetik izan, saiatu arren. Edonola ere, norberak argitaratzen zuen egunkari elebidun nagusiari lotutako egunkaria iragarri zuten; hots, ez zuten egunkari normaldu bat buruan (inguruko beste edozeinen modukoa, alegia), egunkari osagarria, baizik. Geroago, Belokiren taldeak (Jaurlaritzak) gauza bera planteatu zuen, egunkari osagarria.

Mahai-inguruetan, profesionalen eskasia, azpiegiturarik eza, irakurleria urria, euskararen malgutasunik eza eta kazetaritza-hizkuntza sortu gabea, diru-premia, etab. aipatzen ziren etengabe. Gauza horiek denak egiazko premiak ziren arren, bazen elementu bat dena baldintzatzen zuena, alegia, egunkari berriak diruz lagunduta atera behar baldin bazuen, Jaurlaritza osatzen zuten partiduek ez ziotela edonori dirua emango: «(...) ideologia berdineko —Egineko— egunkaririk euskaraz moldatzeko dirurik ez du, indar horiek —PNV, PSOE, EE, AP— emana izango»⁹³. Eta, alderantziz, alegia, euskal irakurlerik gehien zuen egunkaria *Egin* izanda, «horiek ez lukete egunkari erreakzionariorik erosiko euskaraz izanda ere»⁹⁴.

Ez dut inoiz argi ikusi Orain-ek egunkaria egiteko asmo sendoa izan bazuen ala ez —Iparragirre-k gutxiago—, ez dakit egia den ala ez benetan prest ote zeuden Orain-ekoak Iparragirre-koekin batera egunkari bateratua egiteko, Luis Núñez soziologo eta garai hartan *Egin*-eko kazetariak publikoki esan zuen modura⁹⁵, edo *Egin* eta *Argia* elkar harturik gai izan zitezkeen edo ez euskarazko egunkari bat kalean jartzeko⁹⁶. *Argia*-ko Josu Landak zioen, «liluraz lilura baina azpian benetako planifikazio baten falta nabaria» zelako ez zela egunkaririk sortzen, eta Jaurlaritza, berriz, «itxura egiten» ari zela⁹⁷. Kontua da proiektu edo asmo haiek hitzetik hortzera ibili arren, ez zirela mamitu, eta 1990ean sortutako egunkaria partiduetatik eta beste medioetatik independente jaio zela; hau da, partiduen arteko dinamikan oinarritu ordez, herri-mugimenduan txertatuz, eta beste egunkarien atal izan ordez, bere buruaren jabe izango zen egunkaria sortuz, *Euskaldunon Egunkaria*.

91. Datu interesgarri bat aipatu zuen artikulu hartan, alegia, artean 40 kazetari euskaldun zeudela, hamar urte lehenago 10 baino ez zirenean (Aranburu, Xabier, *Euskara*, 1977, **XXII**).

92. Leoiako Kazetaritza Fakultatea, 1984-III-26.

93. *Deia*, 1984-I-18.

94. Amuriza, Xabier, "Euskara hutsezko egunkaria", *Egin*, 1984-I-12.

95. Durangoko Azokan (1983-XII-10), Karmelo Landa irakasleak buru zuen mahai-inguruan eta honako beste kide hauek zituela: Josu Landa (*Argia*), Mikel Atxaga (*Deia*), Mikel Aramendi (*Zer Egin?*).

96. Antxon Allendek (egiatan Jose Felix Azurmendi) proposatu zuen behintzat.

97. *ibid.*

3.2. Eztabaidatik proiektura

Laurogeigarren hamarkadaren erdialdetik aurrera, euskarazko egunkariaren premiak leku gorena hartu zuen eztabaida guztietan. Posizioak hartuta zeuden, eta, labur esateko, ideia nagusia hauxe zen, alegia, euskarazko egunkari bakarra egitekotan, nork egin behar du, botere publikoek, lehendik funtzionatzen duen enpresa pribatu batek —enpresa periodistiko batek, adibidez— edo herri-iniziatibak. Jakina da, azkenean hirugarren aukerak jo zuela helburua.

Atxagak baino lehen, Luis Alberto Aranbarri “Amatiñok” promozionatu zuen egunkari publikoaren edo administrazioak egindakoaren ideia, eta, egia esan, beti mantendu izan du irizpide berbera, *Euskaldunon Egunkaria* itxi ondoren ere bai. 1982an *Jakin*-en emandako ideia —hots, «Euskararen presentzia komunikabideetan salbatuko bada, irtenbide bakarra erakunde publikoetan dago. Gobernuak edota Gobernuek sortaraz ditzaketen erakundeek baizik beste inork ez du gakoaren giltza»—, 1988an errepikatu eta zehaztu zuen, egunkariari buruzko eztabaida mailarik altuenean zegoela:

Nire ustetan irtenbide bakarra enpresa publikoaren aldetik etorriko litzateke, hau da, irrati-telebistaren formula beretik (...) Euskal egunkari publikoa ez da, gauregun inondik ere ametsa. Borondaterik ez omen da falta eta dirua ez da, gehienetan, problema izaten (...) Nik neuk ez dut uste, honen politizatua, grinatsua eta sakabanatua den euskal gizarte honetan administrazioak 250 milioitako subentzioa eman diezaiokkeenik edozein ekintza pribaturi, euskal gizarte osoarentzako egunkaria berekaxa egin dezan⁹⁸.

Diru-laguntzak eta prentsa publikoa ez dira gauza bera, baina Amatiñoren jarrera ofizial bihurtu zuen Jaurlaritzak 1990-91n; *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean, botere autonomikoaren inguruko jendeak bere hartan segitzen zuela zirudien.

Urte horietan egindako eztabaida, artikulu-sorta, mahai-inguru eta abarren harira, honako jendea eta ideiak barreiatzen ziren han-hemenka: egunkari publikoa (Amatiño-Atxaga), egunkari publikotik instituzionalera pauso bat dago (Jon Basterra), instituzioekiko mesfindantza (Josu Landa); ezker abertzaleari dirurik ez emateko, gogorik eza (Núñez); egunkaria premia baldin bada egin dezala nornahik (Epalza); erakunde publiko batek egiten badu ez da salduko, beraz, pribatua egin behar da (Zarraoa). Egunkaria egiteko goizegi zela ziotenak ere baziren, hala nola Pello Salaburu eta Mari Kamen Garmendia. Partiduetako jendeak ere eman zuen hitza: Parlamentuak ordaintzen badu, alderdikoitzat hartuko da (Maturana); ikuspegi zabaleko egunkaria egiteko kapaz den bakarra ezker abertzalea da (Muguruza); intolerantzia alboratu eta kontsentsua bilatu beharra (Onaindia); dirua ez da arazo, euskararen alde elkartu beharra dago (Legarreta). Inoiz erroka moduko batzuk ere entzun ziren, ez dakit orduan oraindik farol hutsak ziren-edo: «egunkari hori egin egingo dugula pentsatzen dugu» (Josu Landa eta Joxemi Zumalabe), «uste dut euskal egunkariaren proiektu horretan egongo garela *Egin* entpresa bezala» (Jon Basterra).

98. *Eguna*, 1988-IV-28.

1988a azken hatsetan zela, *Argia*-k publikoki adierazi zuen prest zuela makineria osoa egunkaria egiteko. Halaxe aitortu zuten bertako kazetari batzuek urte hartako *Argia Eguna* aprobetxatuz: «Argiak egunkaria egingo du» zioen Laura Mintegik, lehenengo *Egin*-en “*A ze Astelehena*” gehigarrian eta gero *Eguna*-n⁹⁹; «Gure helburua egunkaria egitea da», berriz, Iñaki Uriartek¹⁰⁰. Hala ere,aldi berean *Argia*-ri eutsi beharra ikusten zuten; eta Euskal Prentsa bere osotasunean antolatzeari eta sustatzeari.

Panorama, ordea, goitik-behera aldatu zen 1989ko azaroaren 1ean, Donostiako Santo Tomás Lizeoan euskarazko egunkaria martxan jartzeko jende-andana bildu zenean, eta are gehiago urte bereko abenduaren 10ean Durangoko Udaltxeko areto batean, berrogeita hamar bat lagun bildurik, egunkaria izango zenaren ezaugarri nagusiak ezagutzera eman zirenean, eta zer esanik ez Donostiako Udalaren Euskal Txokoan (1990-I-21) Egunkaria Sortzen promotora formalki antolatu zenean¹⁰¹, egunkaria egiteko batzorde espezifikokoak sortuz: «Amaitu da eztabaida antzuen garaia», idatzi zuen Jon Basterrak¹⁰².

3.3. Jaurlaritza vs Egunkaria Sortzen

Interpretazioak interpretazio, kontua da euskarazko egunkaria ez zela sortu beste baten euskaratze mailakatuaren ondorio modura —gerra garaiko *Eguna* ere ez zen izan *Euzkadi*-ren euskaratzearen ondorioa—, eta, beraz, Euskal Prentsa errealitatean egiteko apustua alboratu eta prentsa elebidunera joan zirenek ez zutelara sortu ere. Baina instituzioek ere ez zuten egin —izatekotan, zaildu egin zuten egunkariaren jaiotza—, eta partidu politikoek ere ez. Bi langa horiek gaindituta —suntsitu gabe, jakina— sortu zen sortu *Euskaldunon Egunkaria*; eta zantzu guz-

99. Mintegi, Laura, *Eguna*, 1988-XI-10.

100. Uriarte, Iñaki, *Egin*, 1988-XI-11.

101. Garai hartako zabaltasunik handiena bilatuz osatu zen promotora: Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealдай, Julen Kaitzada, Joseba Jaka, Joxe Azurmendi, Joxerra Garzia, Iñaki Zabaleta, Luis Núñez, Jean Louis Davant, Jakes Bortairu, Nerea Azurmendi, Xalbador Garmendia, Hasier Etxeberria, Imanol Murua Uria, Jon Basterra, Angelu Epalza, Jose Antonio Arana Martija, Alfontso Irigoien, Sagrario Aleman, Joxe Agustin Arrieta, Julia Berrojalbiz, Joxe Ramon Bilbao, Urtsa Errasti, Elene Lizarralde, Josu Landa, Xabier Arzelus, Iñaki Irazabalbeitia, Jexux Mari Zalakain, Paulo Agirrebaltzategi, Jesus Mari Eizmendi, Baleren Bakaikoa, Eugenio Arraiza, Karnele Aierbe, Joxemari Ostolaza, Fernando Unsain, Iñaki Uria, Sabin Gaztañaga, Xabier Mendiguren Bereziartu, Pello Zubiria, Josu Muniozguren, Txema Auzmendi, Andoni Sagarna, Pako Aristi, Koldo Izagirre, Iñaki Larrañaga, Joseba Intxausti, Daniel Landart, Edorta Kortadi, Fermin Lazkano, Henri Duhau, Mikel Bujanda, Benito Lertxundi, Felipe Juaristi, Adolfo Arejita, Jon Lopategi, Patri Urkizu, Gexan Lantziri, Imanol Lazkano, Eusebio Osa, Roger Idiart, Juanjo Arkarazo, Joan Mari Lekuona, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Jokin Aldazabal, Gotzon Garate, Pedro Ruiz de Ulzurrun, Emile Larre, Luzien Etxezaharreta, Ramuntxo Kanblong, Luis Goya, Sebastian Lizaso, Erramun Baxok. Ez dago gaizki! Horietatik Talde Eragile zabala sortu zen, eta bere azpian hiru batzorde: Bateragilea (diplomatikoa esan dezakegu): Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealдай, Txema Auzmendi, Sagrario Aleman, Luzien Etxezaharreta, Karnele Aierbe eta Joxemi Zumalabe; Ekonomia-Batzordea: Urtsa Errasti, Joseba Jaka, Luis Goya, Fernando Unsain, Fermin Lazkano eta Joxemi Zumalabe; Kazetaritza-Batzordea: Nerea Azurmendi, Iñaki Zabaleta, Jexuxmari Zalakain, Josu Landa, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealдай, Koldo Izagirre eta Hasier Etxeberria-k osatuta. Gogor kritikatu zuten batzuek talde honen zabaltasuna, bereziki Mikel Atxagak *Deia*-n eksklusiban “herriko plaza” sailean. Izan zitekeen zabala-goa, jakina, baina nork aitor dezake publikoki gonbidatua ez zela izan edo, behintzat, parte-hartzea debekatu zitzaionik edo gogo txarrez begiratu zenik?

102. *Egin*, 990-II-2.

tien arabera, halaxe sortuko da haren ondorengoa ere. Gutxienez 1976tik Euskal Prentsa euskarazkoa baino ez zela demostratzeko nekea eta zama hartu zutenek gauzatu zuten geroago epaile espainol batek 2003ko otsailean kolpe bortitzez itoko zuena. Aurreko esperientziak —euskara gehiago sartzea, astean behin gehigarri batzuk egiteko dirua ematea, azterketak eta azterketak egitea zeinek irakurri zezakeen jakiteko edo zenbat kazetari zeuden, pausoka aritzea, astean behingo egunkariak bultzatzea, etab.— ez ziren alferrikakoak izan, baina hortik ez zen egunkaria sortu; egunkaria Euskal Herriari bere osotasunean erreparatu eta egoera elebidunarekin eten ondoren, pauso itsu bezain neurtua eman zutenek kaleratu zuten. Ez ahaztu! Itsua, esperientziarik ez zegoelako egunkarigintzan eta ia dena asmatu beharra zegoelako; eta neurtua, bazegoelako CIES enpresak, Jaurlaritzak eskatuta, eginiko azterketa itxaropentsua:

Jaurlaritzak argitaratzen ez zituelarik, *Argia* astekariak ikerketa horren emaitzak argitaratu zituenetik jakin zen eguneroko prentsa baten alde apustu egitea ez zela erokeria eta euskarak hain beharrezko duen egunkari hori posible egiteko baldintzak sortzen eta eskatzen hasteko garaia dela¹⁰³.

Egunkaria Sortzen-eko bi eledunek argi asko esan zuten zergatik erabaki zuten egunkaria egitea, eta, bigarren testuan zehatzago, zergatik hartu zuten iniziatibaren zama:

(...) zazpi urte pasa ditugu honetan. Hor ikusten da diskurtsoa ez dela ezer aldatu, ES proiektu hau bideratzen hasi bitartean (...) beti egon gara esanez kulturak bere autonomia duela, planteatu behar direla gauzak indar sozialen aldetik eta, horrela, momentu batean, indar sozialak bildu dira eta egon den diskurtso antzu hori hautsi eta... Guk egin egingo dugu¹⁰⁴.

Komunikabide idatzietan instituzioekin beti aurkitu gara ez dugula izan politika garbirik. Aldez aurretik definitutako politika bat aldizkariei begira, egunkariari begira... Hori ez dugu ezagutzen. Orduan ezin gaitzke instituzioek zer egingo duten zain egon. Hori ez da sartzeko gure filosofian. Gurean sartzeko da gauzak egitea eta euskarazkoak eta euskararen aldekoak izanik behar dutela laguntza bat¹⁰⁵.

Apustua egin ondoren etorri zen antolaketa, lanaren banaketa, ideia gizarteratzea, enpresa bat mamitzea, laguntzaileak bilatzea, akzioak batzea, kazetariak konprometitzea, hots, proiektua mamitzea. Eta egia esan, denbora errekorrean egin zen dena, *Euskaldunon Egunkaria* 1990eko abenduan irten baitzen kalera, pintxo-pintxo. Egia esan, harrigarria izan zen bost hilabetetan eragin zen lana (143 herritan 185 batzorde bildu ziren, oro har 3000 lagun), diru-bilketaren abiadura (ordukoak oraingoaren antz ikaragarria du, justu Del Olmo epaileak ulertzerik ez daukana), jaiak eta ekimenak, abian jarritako harreman-prozesua, egunkariaren proiektua erakusteko, eta lankidetzeta eta dirua eskatzeko.

103. Egunkaria Sortzen, "Euskarazko Egunkariarako Proiektua", 1989, 5.or. Testu honetan aipatzen den CIESen lan hura, berez interesgarria izanda ere, are adierazgarriagoa izan zen, Jaurlaritzak ez zuelako argitaratu nahi izan, eta *Argia*-ko bi kazetarik —Iñaki Uriak eta Imanol Muruak— 1989ko urriaren 1ean Iñaki Zarraoari —artean EITBko zuzendaria zenari— egindako elkarrizketa batean emaitzak argitaratu —eta gezurretan harrapatu ondoren— eta jakitera eman zituztelako (*Argia*, 1989, X-8 eta 15).

104. *Egin*, 1990-III-11.

105. *Ibid.*

Ezin ditut hona ekarri nire liburuan jasotako erreakzio guztiak eta testigantzak, baina bi jarrera nagusi nabarmendu ziren. Jaurlearitzaren inguruko jendeak prekauzioa eta astiro joan beharra azpimarratu zuten hasieran; porrota ekiditeko, goizegi ez ote zen ere bai. Hasiera batean ez dirudi egunkari publikoaren alde zeudenik ere; hori gerora etorri zen. Hasieran, ekimen pribatua eta publikoa batzeko zurrumurru batzuk ere zabaldu zituzten, Iñaki Zarraoaren ahotik batez ere¹⁰⁶. Egunkari publikoaren alde, Amatiño eta Ramon Etxezarreta egon ziren beti, tinko. Testu bat aipatzearen (gaurko argiz eta hamahiru urteko esperientzia-tik ikusita nabarmentzekoa da, zinez, testu hau), hara hemen Mari Karmen Garmendia orduko Euskara Sustapenerako Zuzendari anderearen bat:

Ni komentzituta nago goizegi dela (...) eta nik benetan esaten dizut, ez dut uste mereziko lukeenik frakaso bat bultzatzeak (...) *Hemen, Eguna, Zabalik* oso esperientzia politak dira eta uste dut horrek baduela izateko arrazoia eta gainera alderdi on asko dituela. Hortik beste salto bat emateko garaia ez dut uste iritsi denik (...) Euskararen normalkuntzarako beharrezko eta desiragarri da euskarazko eguneroko prentsa, baina euskarari kalterik egin gabe planteatu behar dugu ea posible den eta nola porrotik egin gabe. Porrot finantziero bezala ez dit beldurrik ematen, arazoa ez da dirua. Baina ateratzen badugu eta ez bada saltzen, ez bada irakurtzen eta itxi behar baldin badugu hori euskararentzat jipoi izugarria litzateke¹⁰⁷.

Beste alde ibili zirenen jarrera, berriz, hauxe zen: «Inoiz egiten ez bada beti izango da goizegi» (Urzelai); «(...) egia da halaber saioa egin gabe ezingo dela sekula jakin porrot egin ala arrakasta izanen duen» (Iñaki Uria). Erreparatu Pello Zubiriaren testu honi, egunkaria egiteko erabakia zutenek bizi zuten giroaz jabetzeko (oraindik ere balio duena, bistan denez):

Jaio aurretik ere apustua hor dago eta apustu horretan dago definitua, baita ere, zer produktu aterako den (...) Orduan bezala jende talde bat badago esfortzu bat egiteko, eta jakina, medio ekonomiko batzu tarteko, proiektu horrek beti izango du apustu eta militantzia zentzua¹⁰⁸.

Kontuak kontu, zalantzak alde batera, Egunkaria Sortzen promotorako lagunek hiru hilabete zerametela lanean, kontraerasoa jo zuen Jaurlearitzako jendeak: beste proiektu bat landuko dugu guk, Jose Ramon Beloki hartuko dugu zuzendari, eta gurearekin bat egin ala jai duzue, dirurik gabe geratuko baitzaret.

Tonua goraka joan zen. Hasieran, «merezi badu, lagunduko zaio»¹⁰⁹ ozipindu batez erantzun zion Joseba Arregi Kultura Sailburuak Egunkaria Sortzen promotoraren aldarriari. Iñaki Zarraoak bere zalantzak zituen: «(...) edo gaur egunean euskal egunkari pribatu baten alde dauden guztiak batu ea euskal egunkari pribatu bat aurrera atzeratzen dute, edo bestela, administrazioak aterako duen euskal egunkari batean pentsatu behar dugu»¹¹⁰.

106. ETBko "Astelehen buruzuri" programa, Amatiño buru zela, 1989-XII-6.

107. *Egin*, 1989-X-9.

108. "Iturri onetik" irratsaioa, Euskadi Irratia, Odile Kruzeta gidari, 1989-XII-11n.

109. ETB, "Astelehen buruzuri" Amatiñoaren programan, 1989-XII-6.

110. ETB, "Astelehen buruzuri" Amatiñoaren programan, 1990-1-15.

1990eko martxoaren 8an, *Eguna* “astegunkarian” Zarraoari hartutako hitz batzuek adierazi zuten Kultura Sailak egunkariari buruzko “azterketa” egiteko lan-taldea sortu zuela (arraroa, CIESek egina baitzuen Jaurlaritzak berak eskatutako azterketa; ez agintarien gustukoa, nonbait!); hurrengo eguneko *Deia*-n, Garmendiak aitortu zuen bazela urtebete Ardanzari eskatu ziola euskarazko egunkaria ateratzeko (arraroa hau ere, aspaldi ari baitzen euskarazko egunkaria ateratzek zituen zailtasunak bolo-bolo botatzen). Hilaren 14an, Joxe Ramon Beloki, artean *Deia*-ko kazetaria zenaren izendapenaren berri eman zuen Joseba Arregik telebistan¹¹¹, eta aurkezpen publikoa Donostian apirilaren 4an.

Zertarako sortu zuten talde hura azaltzea erraz samarra da *a posteriori*, azkenean gertatutakoaren argitan. Baina ez zuten batere lagundu gauzak argi ikus zitezen. Orduko testuak begiratu, anbiguotasun kalkulatuan ibili zirela esan daiteke, benetako asmoa ezkututzen... dena argitu zen arte. Egunkaria egin ala ez, egitekotan zer-nolako egunkaria egin aztertzeke zela zirudien, eta aldi berean egunkaria egiteko erabakia hartuta zegoela. Eusko Jaurlaritzak hedabideei bidalitako faxean¹¹², «(...) se presenta en rueda de prensa el proyecto para la elaboración de un Diario en Euskara» esaten zen, baina testu haren titulua “Presentación de un diario en euskara” zen. Prentsaurrekoan, berriz, honela azaldu zuen Joseba Arregik:

Profesionari hauen egiteko nagusia, egunkari euskalduna zer izan daitekeen definizio kontzeptuala aurkeztea da: Euren zeregina ez da egunkari bat egitea, bere bideragarritasun ekonomikoaz eta zenbait diseinu alternatiba aurkeztea baizik (...) Ez dugu egunkari bat egingo, bere zeregina jaurlaritzari esatea da nola egin behar den lan euskarazko egunkari bat posible izan dadin: bitarte tekniko eta gizazkoak, maketazioa, diagramazioa, etab.¹¹³.

Gauzak argi zeudela ematen zuen arren, handik egun gutxitara, maiatzaren 17an, beste fax bat bidali zuen Jaurlaritzak hedabideetara, baina euskarazko eta erdarazko testuak ez ziren bata bestearen itzulpena; beraz, susmoak gero eta handiagoak ziren. Irakurri.

El Gobierno Vasco, a través del departamento de Cultura y Turismo quiere aclarar que tiene el deseo y la voluntad de publicar un diario en euskera y que para ello ha puesto en marcha un grupo de trabajo, mediante convocatoria pública y difundida por los medios de información con el fin de diseñar dicho periódico y analizar sus posibilidades reales. El Gobierno Vasco tiene la intención de continuar por este camino sin prisas pero sin descanso hasta que se plantee, con la necesaria seriedad, la publicación de este periódico en euskera.

... Eusko Jaurlaritzak bai baitu bere bidea, bere asmoa, bere proiektua, eta biak gauza diferente dira (...) Eusko Jaurlaritzak ez duela zerikusirik ES taldeak aurkezturiko proiektuarekin ez eta bere inizatibarekin konpromezurik¹¹⁴.

111. ETB, “Fahrenheit” programan.

112. Eusko Jaurlaritza, 1990-II-3ko faxa.

113. *Deia* eta *Eguna*, 1990-IV-5

114. Eusko Jaurlaritza, 1990-V-17ko faxa.

Azterketa egin aurretik, “diferente”? Anbiguotasuna elikatzen joan zen udaberri hartan. Belokik gidatzen zuen taldean, besteak beste, Pello Zubiria *Argia*-ko kazetaria ere sartu zen¹¹⁵ eta bere inpresioak ez zuen zalantza handirik uzten: «Zeren eta badirudi talde honek egunkari baten formatoa, banaketa eta beste zenbait ezaugarri jadanik erabakiak dituela, arras zehaztuak gainera, oinarrizko galderari oraindik argi erantzun gabe» (hau da, zer egunkari behar den, zertarako eta no-rentzat, zer dioten oraingo azterketek, hau al den momentua, egunkari bat ala gehiago egin behar diren, nork egin beharko duen egunkaria, zein iritzi zuen taldeak kalean zegoen proiektuaz, diru-laguntzarik merezi al zuen, etab.). Azke-nean, nazkaturik, Zubiriak taldea utzi zuen, giroa nahasia zelako, Egunkaria Sortzen-en proiektua taldean eztabaidatu ez zelako, Gobernuak IDOMi eskatutako azterketa ekonomikoa ezkutatu zutelako, etab. Geroago, Felix Ibargutxi ere erretiratu egin zen, isilean. Jon Basterrak, berriz, ES proiektua alboratu zuen, Egin egunkaria utzi eta Gipuzkoako Diputaziora aldatu zen.

Belokik, Jaurlearitza azterketa egiteaz aparte, bazuen ideia argi bat, alegia, egin behar zuten egunkaria ohiko egunkarien “diferentea”¹¹⁶ izan behar zuela; argi esateko, “osagarria”, ez beste edozein egunkariaren modukoa (hau da, Egunkaria Sortzen-ek proposatzen zuen bestelakoa izan behar zuen, aztertzen hasi aurretik).

Sorpresa, benetakoa, Joseba Arregik jo zuen, egin behar zen egunkaria Ajuria Enean biltzen ziren partiduen arabera izan behar zela aitortu zuenean Legebiltzarrean ekainean, Xabier Gurrutxagaren (EE) galderari erantzunda. Merezi du osorik ematea:

1. Euskal herrian ez gaude, oraingoz, eta zoritxarrez denbora luze batean, bi euskal egunkari argitaratzeko moduan.

2. Gaur egun ezin daiteke euskal egunkaririk sortu eta aurrera eman herri ardularitzaren eta botere publikoen partaidetza zuzenik gabe, ez finantza mailan, ezta euskal egunkariaren status juridikoaren mailan ere, nahiz eta azken arlo honetan oraindik gogoeta eta eztabaida asko burutu beharko dugun, eta “dugu” diodanean Legebiltzar honetara etortzeko ohitura zuzen eta demokratikoa duten alderdi guztiak ditut gogoan.

3. Bat nator parlamentari jaunarekin ahaleginak proiektu bakar batua biltzeko bideratu beharko liratekeela. Egia osoa esan behar badut, ordea, ez naiz baikorregia ahalegin horiek izan dezakeen arrakastari dagokionean.

4. Bi proiektuak batera elkarrizketarik ez dut izan ES delako proiektuaren sustatzaileekin... Lehen esan dut, nire zalantzak handiak direla bateratzeari dagokionez.

5. Eusko Jaurlearitzak espero du oporrak aurretik Euskal Egunkariaren proiektua eskuartean izatea, batez ere gazetaritzari dagokionetan. Proiektu hori izango du aurrera jarraitzeko Eusko Jaurlearitzak gidari, Legebiltzar honetara biltzen diren alderdiekin elkarlanean, lehen esan bezala. Honetara biltzen joan beharko luke Euskal Egunkaria nahi duen guztiak. Eusko Jaurlearitza ez dago prest bi euskal egunkari

115. Pello Zubiriaz beste, honako lagun hauek osatu zuten Belokiren ekipoa: Elisabete Garmendia (ETB), Antton Aranburu (*Euskadi Irratia*), Imanol Unzurrunzaga (*Eguna*), Jon Basterra (*Egin*), Felix Ibargutxi (DV), Ignacio Irizar (*El Correo Español*).

116. *Egin*, 1990-VI-13.

laguntzeko. Bateratzerik ematen ez bada, beraz, ES proiektuak ez du Jaurlaritzaren babes eta laguntzarik izango¹¹⁷.

Bapo! Egitekotan, egunkaria Ajuria Eneako itunean parte hartzen zuten partidu politikoen artean egingo zen —parte hartzen ez zutenak zokoratuz—, kulturaren autonomia politizatu eta pikutara bidaliz; batzeko premia adierazi bai, biderik eman ez, eta susmoak ugari. Eta diruz ez laguntzeko mehatxua.

Berehala erantzun zion Joxemi Zumalabek, proiektua kaleratu zenetik batekin eta bestearekin hitz egiten saiatzen ari zirela kontuan hartuz:

Proiektua kondiziorik onenean jartzearen, planteia daitezkeen elkarrizketa eta konfluentzi-possibilitate guztiak saiatzen segituko dugu. Uztailean Eusko Jaurlaritzarekin gaia birplanteiatzeko aukera izango dugula uste dugu. Ene aburuz, konfluentzi horretarako bideak biltzen segitu behar dugu¹¹⁸.

Eta aulki bat eskaini zion Jaurlaritzari administrazio-kontseiluan, azkenean egunkaria ateratzeko gai baziren¹¹⁹.

Izan ere, Jaurlaritzak bere proiektua izan zezakeela jakin zenean, xehetasunak xehetasun, mundu guztia hasi zen bateragarritasuna eskatzen: Ikastolen Konfederakundea, ELA sindikatua, Arrasate Euskaldun Dezagun, etab. Bi egiten saiatuz, bakar bat ere ez egiteko beldurra baitzegoen. Hara hemen, ordea, nola ikusten zuten bateragarritasuna Lakuan, beheko pare ba testuon argitan: Arregirena, lehena; Zarraoarena, bigarrena:

Ez gaude elkarrizketetara itxiak, baina elkarrizketa elkarrizketa da, baldintza esan nahi duen ekintzaren aurretik jarri gabe. Elkarrekin hitz egin nahi dugu, baina gu prest gauden markoan¹²⁰.

Eusko Jaurlaritzak zabalik dago elkarrizketetarako, egunkari zabala, eskuhartzez egina, demokratikoa, euskal irakurle posible guztien integratzailea du gogotan (...) Eusko Jaurlaritzak erabat zabalik dago elkarrizketarako egunkaria Sortzenekin eta beste giza taldeekin. Ez, jakina, Gobernua SEn integratu dadin. ESeko kideak eta bertan ez dauden beste askok Gobernuak sustatzen duen proiektuan nola parte hartu estudiatzeko eta aportazioak aztertzeko baizik¹²¹.

Egunkaria Sortzen taldekoak ere konfluentzia-bideak aztertzearen aldekoak ziren eta, horren frogatzat, era guztietako instituzioekin egindako dozenaka bilera ekar daitezke hona. Joseba Arregirekin ere bildu ziren noizbait —1990eko maiatzaren 11n, hain justu—, eta egunkaria kalean jarrita ere bai: «... kalean errealitate bihurtu dugun produktua hobeagotzea helburu, elkar hizketan has gaitezen», 1991ko ekainean¹²². Halako batean, ostera, ordura arteko inoizko erasorik beldur-

117. Arregi, Joseba, Gasteizko Legebiltzarra, 1990-VI-29.

118. *Egin*, 1990-VI-30.

119. Donostiako Herri Irratiko "Kale kantoian" programan, 1990-VI-15ean. Azkenean, ez dakit justu zein urtetan —laugarrenean edo izango zen— Jaurlaritzak teknikari bat eseri zuen Administrazio Kontseiluan. Nik zuzenean esan dezaket, *Euskaldunon Egunkaria*-ko Administrazio-Kontseiluko kide izatea egokitu baitzitzaidan urtetan, Orain SA-ren izenean.

120. Arregi, Joseba, Gasteizko Legebiltzarrean, 1990-VI-29.

121. Zarraoa, Iñaki, *Deia*, 1990-VIII-14.

122. *Euskaldunon Egunkaria*, 1991-VI-22 [Administrazio Kontseiluak idatzitako gutuna].

garriena jo zuen Joseba Arregik Egunkaria Sortzen ekimenaren aurka Gasteizko Legebiltzarrean:

Zenbaitentzat zerbaitek zabala, irekia, plurala izan behar duela esateak nahaste borrastea esan nahi du, manipulaziorako aukera, lotsagabearena, joko arauak errespetatu beharrik ez dagoela pentsatzen duenaren aukera. Guk berriz alderantziz dela uste dugu: ez dago zabala, irekia, plurala izaterik joku arauak argi ta garbi ez badaude, eta zehatz-mehatz betetzen ez badira. Eta guzti hau batez ere diot gure gizarteari begira, guztioi inuxenteak izateko garaia igaro zaigulako, edo gutxienez igaro beharko litzaigukeelako, gure gizartearen zabaleroan, irekitasunaren, pluraltasunaren aurpegia edo zurikeria beharrezko zaien bat baino gehiago daudelako atzetik beraien azpijokoa, aspaldidanik ezagutzen dugun azpijokoa egiteko. “Herriarena, guziona, denok elkarturik” eta honelakoak askotan entzun ditugu azken urte luzeetan eta badaukagu zertarako erabiliak izan diren. Eta badakit, batez ere, euskarari loturik honelako deiek halako indar berezi bat hartzen dutela. Horregatikantxe, ordea, honetan beste ezertan baino gutxiago utzi behar ditugu gure buruak engainatzen. Eta aipaturiko elementu guzi hauek era batera edo bestera azaltzen ari dira euskal egunkariaren gai honetan¹²³.

Bistan denez, hizkera-modu hura banderatzat, bateragarritasun-aukerak arras urriak ziren. Testu horren mamitik ESen proiektua ETaren proiektua zela esatera urrats tiki bat baino ez dago. Eta urratsa eman egin zen, jakina, behin egunkaria kalean zelarik. ETBk bota zuen lehen harria: ETB-1ek “Gaur Egun-en”, eta ETB-2k “Teleberri-n”, ilunabarrean: «*Euskaldunon Egunkaria*-ren zuzendariaren izendape-na ETako buruzagien oneritiz egin omen zela uler daiteke Frantzian atxilotutako etakideei harrapatutako dokumentazioan»¹²⁴. Hortik aurrera, beste guztiak hasi ziren tiraka. 1992ko otsailaren lehen egunetan Manu Idarraga (*Egin*-en lan egiten zuen) eta Jose Karlos Apestegia (*Euskaldunon Egunkaria*-n hasi berria publizitate-zerbitzuan) atxilotu zituen Ertzaintzak, ETarentat zerga iraultzailea-edo biltzen ari omen zirela. Honelaxe aprobetxatu zuen egoera Joan Mari Atutxak, artean Barne Kontseilaria: «[Ertzaintzaren ekintza honek agerian utzi du] ETaren sarean eta HBko mundurako hain garrantzitsuak diren Mahai Nazionala, *Egin* eta *Egunkaria* eta LABen artean dauden bat etortze esanguratsuak»¹²⁵. Hamabi urte berandua-go, paper berberak atera dituzte tiraderatik, guztiok dakigun ondorioekin. Alferrik, orduan ere, 2003ko otsailean bezala, egindako protesta: «Ez hasierako Adminis-trazio Kontseiluak, ez eta ere Akziodunen Batzarraren ondoren osatutakoak, ez du inoiz ezein indar politikoren eraginik jasan, ez zuzendariaren hautaketan, ez kapital bilketa prozesuan, ez eta ere bere gestioarekin zerikusirik izan dezakeen inolako alorrean», aldarrikatu zuen Egunkaria Sortzen-eko Administrazio Kon-tseiluak.

Hortik aurrera ezinezkoak izan ziren Jaurlaritzaren eta *Euskaldunon Egunka-riaren* arteko harremanak, urte batzuk geroagora arte¹²⁶. Hain gogorrak eta

123. Arregi, Joseba, Gasteizko Legebiltzarra, 1990-VI-29.

124. ETB, 1991-VII-10. Jose Domingo Aizpurua eta Karmen Gisasolari urrian atzemandako paperez ari ziren, oraindik publikoak ez ziren arren.

125. *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-II-4.

126. Hemen, nire liburuan jasotako ohar bat aldatuko dut, ikus dadin Jaurlaritzak boikot ekonomiko osoa ezarri ziola hasieran *Euskaldunon Egunkaria*-ri: «Ikus *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-IV-12 eta bereziki 1992-VI-17 eta 22koak, zeinetan “zentsura ekonomikoa” datu zehatzak erabilia salatzeaz gain (“Egunkaria ito nahi dute”), Usurbilen antolatua zen berebiziko euskaldunon jaiaren berri ematen baita.

etsigarriak izan ziren *Euskaldunon Egunkaria*-ren eta Joseba Arregiren arteko harremanak ezen Joxemi Zumalabek amaitu gabe utzi zuen iritzi-artikulu batean haren dimisioa eskatzea gomendatzen baitzuen euskaltzaleak elkarkidetzeko baldintza gisa, harekin ez baitzegoen deus lortzerik. Pasarte biziki interesgarria jaso du Lorea Agirre kazetariak Joxemiren biografian:

Martin Ugalderi eman zion [Joxemik] artikulua berri, euskaltzaleek Arregiren dimisioa eskatzeko nahiko arrazoi bazela pentsatuta. Ugaldek ondo ezagutzen zuen Arregiren jarrera, bilera askotan Joxemirekin batera izana baitzen harekin. Horietako bat biziki gogorra izan zen. Horrela gogoratzen du Ugaldek: «Gure diru guztiak nondik nora atereak ziren ikus zezan, Egunkariako sos kontuen paper guztiak erakutsi genizkion. Eta gurekin lan egiteko esan genion, berdin Kontseiluan, berdin bere langileak lanean jarrita». Hurrengo bilera baterako geratu ziren. Arregik ez zuen kezarik izan proposamenaren inguruan, baina laguntza ukatu zien. «Badakit Arregi harrিতuta geratuko zela paper haiek aztertuta, zein garbi eginda zeuden, teknikoki zein prestatuta. Egiaztatzeko errazak. Arregik ez zigen kexa zehatzik azaldu, ez zigen adierazi zer iruditzen zitzaion gaizki, mamuak zekusala esan zigen. Gerra garaian eta Franco-ren pean nahikoa adituta nago gorriak ginela eta halakoak. 'Nahikoa da' esan nuen nik, 'ez zait mamu gehiago golkoan sartzen». Ugaldek bileratik hanka egin zuen, eta han geratu ziren Joxemi eta Joan Mari Torreal dai Arregiren aurrean berunezko isiltasun baten pean. "Arregik kontrolatzen ez duen ezer ez du onartzen", idatzi zuen Joxemik amaitu gabe utzi zuen artikuluan¹²⁷.

Jarrera horrek badu esplikazio sinple bat, alegia, Arregik ez zuela lortu Euskal Prentsaren aldeko jendeak euskarazko egunkaria ateratzeko asmoa paralizatzerik. Ortuzainaren zakurrari buruzko alegiaren pareko jarrera izan zen hura: jan ez, eta jaten utzi ere ez. Gero, gauzak aldatuz joan ziren, gutxika-gutxika. Itxi dutenean, berriz, bestelako giroa irabazita zegoela demostratu da alde guztietatik. Baina, hasierak hemen kontatutakoak izan ziren, ez bestelakoak. Espainiako epaileek Martin Ugalde auziperatuko ote zuten zurrumurrua zabaldu zenean, asaldatu egin ginen denok, baina, hor ere, bazegoen aurrekaririk; izan ere, Zarraoarenak dira hitz hauek: «Martin Ugaldek jakingo du zer egiten duen Egunkaria Sortzen-en, ENAMen orbitan»¹²⁸.

Uztailaren 27an Belokiren taldeak txostena jendaurrean erakutsi zuenean, bi mundu desberdin zeuden haren proiektuaren eta Egunkaria Sortzen-ek egindakoaren artean: Belokirena —*Egunero*, izenekoa— EITBren barruan —euskararen multimedia— argitaratuko zen egunkaria zen, bigarren egunkari osagarri modukoa, igande eta astelehenean ez ezik abuztuan ere argitaratuko ez zen egunkaria, lehentasuna ohikoak ez ziren irakurle berrien bila joatea zuen, kioskoa baztertu gabe eskola-umeek etxera eramanez banatuko zena, beste edozein egunkari baino merkeago salduko zena, denona izan behar zuena, ideologia baten morron-

Urte bete beranduago, bigarren Jaia Bizkaiko lurretan ospatzean (*Egunkaria*, 1993-VII-10), gauzak ez dira funtsean aldatu. Egoera berdina da: hitsa Jaurilaritzaren aldetik, erabaki osokoa egunkarian. Hortik aurrera hiru bidetik entzuten da arazoaren konpon beharra. Euskararen Aholku Batzordeak (*Egunkaria*, 1993-VII-10), "gogoeta erreala, orekatua eta zuhurra" egiteko ordua dela gogoratzen du. Gerorago, Mario Onaindiak (*Egunkaria*, 1993-VII-10) "HBren inguruko sektoreei zubiak zabaltzea" proposatzen du, horien artean *Egunkaria* ere kontatuz. Azkenik, EAK eta EuEk, Jaurilaritzak *Egunkaria*-ri egiten dion publizitate-boikota zuzen dezan, ez-legezko proposamena aurkeztu du (*Egunkaria*, 1993-IX-3)».

127. Agirre, Lorea (2003): *Joxemi Zumalabe, Ipurtargiaren itzal luzea*, Egunkaria, Andoain.

128. *Deia*, 1990-VIII-4.

tzan egon behar ez zuena, irekietan irekiena eta pluralisten pluralena, egunkari segmentatua, etxekoa, alternatiboa, desberdina, berezia. Txostenaren hitzak dira. Justu Jaurlaritzak CIESi eskatutako azterketak esandakoaren kontrakoa adierazten dutenak, ordea:

Egunkari honek gaurko prentsaren (Argia...) irakurle guztien artean sustraiturik behar du epe laburrean eta irakurlearen egunkari bakarra izango ez bada ere, horixe da apustua, identifikazioaz lehenengo izatea eta horretara jotzea, egunkari osoa, duintasunezkoa, normala eta konpetitiboa izatea¹²⁹.

Beloki eta bere taldeko proiektua diskutigarriak izan daitezke, baina Arregiren Sailak eginak zituen bere kalkuluak, eta kazetari-taldeak egindako proiektuak esaten ez zituen gauzak adierazi zituen, adibidez: «Gobernuak... partidu demokratikoez markaturiko alorrera zabalduetako egunkari batentzat» bakarrik ikusten zuela tokia, edo «ondorioz, ez dut ikusten posibilitaterik ia ehuneko ehun finantziatuko ez den egunkari bat aurrea ateratzeko. Gobernuak ez dago prest inolako subentziorik emateko»¹³⁰. Hala ere, Belokiren taldeak ez zuen txintik atera Sailburuak desitxuratu zuen proiektuari buruz. Edozein modutara, azterketa hura ezerezean geratu zen —laurogeiko hamarkadan Jaurlaritzak egindako guztien antzera—, ez zen inoiz Legebiltzarrean aurkeztu, eta egunkaria ez zen kaleratu, zero zenbakia izan ezik. Nire inpresioa da, Jaurlaritzak ez zuela argitaratzeko asmorik ere. Haren helburu ezkutua *Euskaldunon Egunkaria* zena abortatzea izan zen, politikoki madarikatua eta diru-laguntza izateko esperantzarik gabe etsita. Zein bestela?

Euskaldunon Egunkaria-k, berriz, Egunkaria Sortzen-en ekimen modura ulertuta, beheko hamaika agindu hauek zituen ardatz eta oinarri. Ezagunagoak dira *Uztaro*-ren irakurleentzat, eta azken hilabeteetan asko aipatu direnez, hemen zerrendatuko ditut, proiektua kaleratu zeneko iruzkin batzuk lagunduta.

Lehenik “EUSKALTZALEA” (ez soilik euskalduna): «Euskaltzaletasunak emango dio egunkaria kalean jartzearen saio honi lehenengo eta funtsezko oinarria. Bera bait da saioaren arrazoia. Herri honek beste egunkari bat izatearen arrazoia euskara hutsez egunkaririk ez izatean bait dago. Euskaldunok badugu euskarazko eguneroko prentsa izateko eskubidea. Eta herri honek badu bere hizkuntzaren normalizaziorako bidean euskarazko egunkariaren beharra: Euskaltzaletasun horrek bultzatzen gaitu proiektu hau euskal kulturarekin konprometituta ikustera. Herri honek behar duen proiektu nazionalean euskal kulturaren berreraikuntzak funtsezko papera bete behar bait du». Proiektu editorialaren lehen datu garrantzitsua: Euskal Herriaren proiektu nazionalean txertaturik ikusten da egunkaria. Ezin uka halako proiektu batek duen alde politikoa (ez alderdikoia), baina horretarako bidea ez da ikusten politikagintzan (alderdi politikoen estrategian, hobeto esanda), kulturgintzan baizik. Konbentzimendu sendoa dago honen guztiaren atzean, alegia, errazago dela bateratzea, alderdikeriak utzi eta euskaltzalegoaren baitan, nahiz eta Amatiñok esan «euskarak batzen gaitueneko leloa kortesia hutsa da»¹³¹.

129. CIES (1990): Euskarazko Aldizkako Argitalpenak edo aldizkariak. Euskarazko Egunkaria, Iruñea, 184.

130. *Egin*, 1990-VII-28.

131. *Eguna*, 1990-VI-7.

“NAZIONALA”, gero: «Lurraldetasunaren aldetik nazionala izatea ere funtsezkoa deritzogu. Gure herriak gaur egun nozitzen duen zatiketa administratiboaren gainetik, bai hizkuntza edo kultur beharren aldetik eta baita ere zerbitzu informatiboaren aldetik herri honek batzea izan behar baitu helburu». Ezein instituzio autonomikok baieztatu ezin duena da hori. Proposatutako egunkariak Euskal Herri osoa hartzen du lurraldetzat, zatiketa politiko-administratiboa gaindi dezakeen batasuna bilatuz.

“BATERAKOIA”, hirugarrenik: «Baterakoia izan behar du saio honek. Setakerien gainetik egunkariaren alde elkar daitezkeen indar guztiak behar baititugu batu. Nahiko lan izango baitu berez euskarazko egunkari batek, euskarak egun nozitzen duen egoerarengatik, bere funtzio soziala betetzeko, gure arteko tirabiretan etorkizuna oztopatzen ibili gabe ere». Printzipioz egunkariaren alde batu nahi ziren guztiak ekarri nahi ziren proiektuaren ingurura. Ez zegoen alde horretatik zitalkeriarik, baina batzeko dei indiskriminatua ere ez, alegia, bateratzeko kondizio bakarra proiektuan sinistea zen. Esan dezagun, beraz, zabala zela proiektua baina inpartziala ez.

“ZABALA”, laugarrenik, eta badirudi ezaugarri hori ulertzeak sortu dituela komeria gehien, itxi eta gero. «Zabala izan behar du saio honetatik irtengo den egunkariak. Astakeria litzateke, egun, irakurlearen osotasunera zuzentzen ez den egunkari bat argitaratzea. Ahalik eta irakurle horretako esparru handienak aurkitu behar du egunkari horretan bere egunkaria. Alde horretatik funtsezkoa da ez begibistatik kentzea euskal irakurlearengan aurki daitezkeen etenik nagusia gaurko instituzioen onarpena ala aldaketa defendatzen dutenen artekoa dela. Saio honek oinarrizko batasun joera bat mantenduz, muga horiek gainditzera jo beharko du denok Euskal Herriarentzat nahi dugun burujabetzaren mesedetan». Bi zentzutan zen zabala proiektua: euskal irakurle ororentzat izanda, eta instituzioekiko onarpen/gaitzespen dikotomia gainditzeko saiaturik. «Euskaldun guztion egunkaria egin beharra —aipatzen zuen egunkaria sortu aurretiko kanpaina-testuak—: ez Jauralaritzarena, ez Nafarroako Gobernuarena, ez partidu batena, ez enpresa batena. Guztiona. Horretarako ezinbestekoa da guztiok parte-hartzez egitea. Guztiona izateko hasieratik bukaeraraino horretan gure ahalegina jarri behar dugu. Ezagunak dira laguntza ofizialez beteriko eta porrot egindako esperientziak. Egunkariak arrakastarik izango badu, euskaldungoan ondo txertatu delako izango da; hau lortzeko modu bakarra euskaldun guztiona sentitzea izango da (...) Gakoa, bada, ordenamendu juridikoaren baitan formula egoki bat aurkitzean datza. Finantzaketan ahalik eta partaidetzarik handiena lortuko duena batetik eta, bestetik, inori ez dakion iruzur egin, zainduko duena, denborak aurrera egin ahala esaterako, egunkaria talde edo erakunderen baten tresna bihurtu dela eta».

“INDEPEND(I)ENTEA erakunde politikoetatik”, eta “INDEPEND(I)ENTEA” erdarazko beste medioetatik —bi aldiz independentea, beraz— izan nahi zuen proiektuak. Erakunde politikoetatik, interes politikoaren esku ez geratzeko; eta medio elebidunetatik, diglosiatik ihes egiteko. Ez ahaztu, 1976ko apustua elebidunaren hesia gainditzeko izan zela, euskaraz informazioa gauzatzeko, Euskal Herria eraikitzen laguntzeko.

“EZ INSTITUZIONALA”, “(anti-instituzionala ere ez)”: Justu CIESen azterketak, nahi zuena: «Nabarmentzekoa da, ordea, azterketak dioenez, euskaltzale sektore ezberdinen arteko batasunaz eginiko egunkari ez instituzional batek izango lukeela etorkizuna errazen, edonola ere subentzio publikoak beharrezko liratekeelarik¹³²». «Administrazioaren aldetik kontrolak beharrezkoak dira, dio Egunkaria Sortzen-ek, instituzioen diru laguntzaren arauera. Diru horiek publikoak izaten baitira, kontrol publikoa zilegi da. Halaz ere iruditzen zaigu beharrezko diren diru publiko horiek ez dietela instituzioekiko arduradunei beste motatako kontrolik ezartzeko eskubiderik ematen. Arlo editorialari begira gorago definitu den askatasun beharrak puntu honetan ere instituzioetatik etor daitekeen kontroletik kanpo geratzea eskatzen du». CIESen azterketak “inolako kontrolik gabea” nahi zuen balizko egunkaria, baina nola ukatu diru publikoaren kontrola? Baina hau ez da inolaz ere Amatiñok, oraindik orain, ESren ekimena erridikulizatuz-edo esaten jarraitzen duena, alegia: «Emaniezaguzue urtean behingo dirulaguntza eta zaudete lasai¹³³», ez eta urrik emanda ere. Hortik, beraz, hurrengo ezaugarria.

“DIRUZ LAGUNDUA”, alegia: «Arlo horretatik etor daitezkeen kontrol behar guztiei aurre egitea uka ezinezko behar bat dela erizten diegu (...) Aurre kontsiderazioetan luzatu gabe, euskarazko edozein proiektu erdararekin konpetitu beharrean aurkitzen dela eta laguntza bereziak behar dituela garbi dakusagu guztiok. Laguntza horiek euskal proiektuak indartzeko eta gizartean izan dezaketen eragina areagotzeko beharko lukete izan. Alde horretatik hemen aurreratutakoek ez dute minimo ezaugarririk izan nahi. Baina indartu aurretik bizi egin beharrean aurkitzen direnez, biabilitatea garantizatzeko neurriak dira eskatu behar ditugunak».

“MILITANTEA”: «Diru laguntzak lortuta ere, proiektu honek bertan parte hartzen dugun guztion militante joeran izango du bere etorkizuneko garantzia. Euskararen egoerak ez dio baldintza normalizatu batzuen mesedea eskaintzen euskararen aldeko proiektuetan sartuta dabilenari». Eta, aldi beran, profesionala, kontraesanik gabe.

“PROFESIONALA”: «Profesionala behar du izan egunkariak bai eta ere proiektu editorial —enpresarial— guztiak. Kalitatea helburu baino oinarrizko beharra du horrelako proiektu batek eta kalitatearen aldeko grinak saio honen izaera mugatu beharko du. Etorkizuna horrek erabakiko bait du». Beraz, militantea bai, euskararen egoera ez normalduan egonik, edozein kazetari profesionalen kondizio berberetan jokatzeko ezinezkoa bilakatzen delako; profesionala, ere bai, ordea, egoera txarrean ere produktua kalitatezkoa ez bada, porroterako bidean jartzen delako. Euskaraz nahi zen egunkaria, baina kalitatezkoa, bestela ez delako erosiko.

“BERRIA”, azkenik, «Euskal Prentsaren urrats berri hau, batetik, ez da posible izango ez bada gaur dagoen errealtatean oinarritzen. Alde horretatik laguntza guztiak onuragarriak dira. Baina bestetik ezin proiektu berriak beti dakarren arriskuan jarri iadanik hainbeste nekez lortu diren errealtateak. Horregatik proiektu hau berria izatea ere ezaugarri berezizat hartzen dugu. Indar berriz proiektu berrietan apustu egiteko garaiak bait ditugu hauek¹³⁴». Gogoratu, helburu estra-

132. Ikus CIES, aipatuako obra.

133. Amatiño: “Epeletik gora”, *Argia*, 2003-III-23.

134. Zalakain, Jexuxmari, “Egunkari bat euskaldunontzat”, *Gara*, 2003-III-10.

tegikoa Euskal Prentsa bere osotasunean indartzea izan dela sektoreko kezka nagusia; ez, egunkari bat egitea eta gainerako produktuak bigarren mailara pasatzea, santu bat janzteko beste bat erantziz. Nork esango zuen, azken ezaugarri hauxe izango zela *Euskaldunon Egunkaria*-ren ondorengo egunkariaren izena!

Argi samar ikustea espero dut, proiektu hark hamarkada osoan egondako tirabirak modu txukunean gainditu zituela: beste edozein egunkariaren funtzio berbera izatea¹³⁵; euskaldunak hartzea oinarritzat eta ez partidu politikoak, esparru geografiko modura Euskal Herri osoa hartzea horrela lurralde-zatiketa gaindituz; euskaldunen arteko indar guztiak biltzen saiatzea, printzipio editorialetik abiatuz; finantza-formula egoki baten bidez egunkaria inorena ez izatea erdiestea, guztiona izan ahal izateko; formula enpresarial modura beste egunkari elebidun baten pean ez jaiotzea, horrela elebitasunari aurre egiteko; diru publikoaren laguntza behar duenez, maila horretako kontrolak onartzea; euskararen egoera ikusirik militantea bezain profesionala izatea konpetitiboa izatearren; eta berria, Euskal Prentsak bere osotasunean eskatzen zituen erronka guztiei aurre egiteko beti prest. Euskarazko Komunikazio Taldea SA enpresako lehendakari Joxean Lizarribarrek bi ezaugarritan laburbildu ditu "BERRIA" egunkariaren ezaugarriak: independentea eta zabala¹³⁶.

4. Balantzea: herri-mugimenduaren miraria

Euskaldunon Egunkaria itxita, *Egunero*-ren behin-behineko zerbitzuaren azken egunak omen direnez, proiektu berria Euskal Komunikazioaren Taldearen inguruan mamitzen ari dela, 0 zenbakia 2003ko ekainaren 14rako agindu dutelarik, balantzea egiteko ordua da, artikulu honi amaiera emateko-edo. *Joxemiren uzta* izeneko liburua idatzi nuenean, Euskal Prentsa herri-mugimendu baten izena dela esaten nuen. Eta horri eutsi behar zaio. Hamahiru urte pasatuta, inoiz baino argiago daukat herri-mugimenduaren miraria dela euskarazko prentsaren inguruan gertatzen ari dena, eta, herri-mugimendua izan ezik, inor ez dela gauza, prentsari dagokionez, orain arte egindakoa zein hemendik aurrera egingo dena mamitzeko. Joxemi Zumalabereren hitzak dira honako hauek: «*Euskaldunon Egunkaria*-k, egunen batean ahaztu egiten badu euskararen aldeko herri mugimendutik sortu zela, bereak egin du, oinarri hura baita oraingo eta geroko garantia bakarra»¹³⁷.

Orain arte agindu digutenaren arabera, jaiotzear dagoen egunkari berriak aurrekoaren espirituari eutsiko dio, ez da eten esanguratsurik izango, euskararen aldeko herri-mugimenduan tinkatuko ditu oinarriak. Artikulu hau idazten hasi nintzenean, banituen nire zalantzak; administrazio autonomikoko jendea berriro hasi baitzen laurogeigarren hamarkadako lelo berbera errepikatzen¹³⁸: zabalagoa

135. 1975ean Torrealdai esandako hitzen arabera: "Egiatzko egunerokoa izango den egunkari bat nahi dugu: Ez itxurazko egutegi bat" (Jon Altzibar, "Egunkari bat euskaraz", *Anaitasuna* 1975.IX.15).

136. *Egunero*, 2003-IV-12: "Lehengoa bezalako egunkaria egin behar dugu, independentea eta zabala".

137. UPVko Areto Nagusian, Leioan, 1991ko udazkenean.

138. Egunkariaren itxierari buruzko iritzi-bilduma nahi duenak bi ditu dagoeneko: Mintegi Laura, *Jakin*, 144-154 eta, Manu Robles-Arangiz Institutua, *Gai monografikoak* izeneko aldizkaria, 2003ko maiatza-ekaina.

behar zuela izan¹³⁹, EITBren barruan egin behar zela, inoren erasorik ez jasotzeko moduko egunkaria kaleratu behar zela, gizarte-eragileek, alderdi politikoez, herri-agintariek eta hiritarrek “guztiek” elkar harturik egin behar zutela egunkaria, etab. Batez ere Miren Azkarate Sailburuak harrotu zituen bazterrak¹⁴⁰, arazoa hamahiru urte lehenagoko eztabaida-harira ekarriz. Pluraltasuna gora eta behera ibili zuten askok eta askok, itxiarazitako egunkariak pluraltasun sobera izan ez balu bezala. Gauzak laburtuz, ordea, ederki azpimarratu zuen Josu Landak gertatzen ari zena: «Badakit, azalean alderik alde “ETA ez” dioen titular bat argitaratzen ez duen bitartean, hainbat jende ez diola aitortuko *Egunkaria*-ri egin duen ekarpenaren itzela»¹⁴¹, batez ere Euskararen Aholku Batzordeak bere iritzia eman ondoren. Maila horretako artikulurik adierazgarriena Xabier Aizpuruak¹⁴² idatzi zuen, bere artikuluan laburbiltzen baitira ondoen laurogeigarren hamarkadan botere autonomikoaren inguruan izandako mamu guztiak: «Dena den, bada, bai, horietatik guztietatik bereizten duen ezaugarri bat: ez salatzea ETAk eginiko eraso eta atentatuak»¹⁴³. Baina, azkenean, badirudi, gauzak bere onera etorri direla. *Egunkaria* zenaren langileek argi adierazi zuten beren iritzia: «Ez dezagun ahaztu Guardia Zibila izan dela proiektu hau zapuztu duena, ez zabaltasunaren inguruko auzia (...) Zabaltasunaren mesederako ez dezagun oinarri herritarreko proiektua ur politikoetara eta instituzionaletara bideratu; galbidea litzateke»¹⁴⁴. Azkarate andereak berak «egunkariaren independentzia» bermatu behar dela aitortu du, eta «euskarazko eguneroko prentsa kalean egon dadin ziurtatzeko konpromisoa hartua dugu»¹⁴⁵. *Egunkaria* zenaren langileek, Euskal Komunikazio Taldea sortzean¹⁴⁶, zuhur asko markatu diote bere lekua administrazioari: diruz laguntzea, nahi badu, eta akzioak erostea, gustukoago baldin badu, betiere erabakitzeke ahalmenik gabe; hau da, Egunkaria Sortzen-eko lagunek baino zorrotzago, alegia. Erabaki hau ez da kapritxosoa, badu bere funtsa, eta da zerbitzu publikoa nola ulertzen den. Publikoaren eta pribatuaren artekoa laurogeigarren hamarkadak asko astindutako beste gai bat izan zen. Ez dugu gure testu honetan gehiegi aipatu. Nire liburuko zati bat ekarriz laburtuko dut *Euskaldunon Egunkaria* egin zuten publikotasunari buruz zeukaten iritzia. Izan ere, Egunkaria Sortzen promotoraren ekimena enpresa publikoaren aldekoa zen, juridikoki forma pribatua hartu arren. Hemen ikastolen auzian gertatutako kasu berbera ageri da, gehiegitan uste baita publikoa eta estatala, gubernamental edo administrazioarena izatea gauza bera direla.

Euskal prentsaren —eta herri-mugimendua horrekin nola edo hala bat egin duten guztien— ikuspegitik begiratuta, herri indarrak bildu egiten den enpresa da publikoa, zabaltasunik handiena hortxe dagoelako, indar metaketa bertan adierazten delako, erizpide desberdin baina herri kutsuz osatutakoa bertan azaltzen delako, nazioaren planteaketa erabatekoa horren baitan jokatzen delako, aniztasuna, indar biderkatzailea erakusten duelako, eta ez elementu heterogeneoen adizio edo batuketa sinplea. Zerbitzu publikoaren gestioa askoren artean egin (indar sozial

139. Zallo, Ramon, ETB, “Políticamente correcto”, 2003-II-23.

140. *Egunero*, “Errautsak zimentarri”, 2003-III-6.

141. *Egunero*, “Oinaze gehigarriak”, 2003-III-21.

142. *Egunero*, 2003-III-15. Xabier Aizpuru Telleria Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako idazkari ohia da

143. *Egunero*, “Normalizazioaren alde”, 2003-III-15.

144. *Egunero*, “Elkarlana, independentziatik”, 2003-III-9.

145. *Euskararen Berripapera*, 130, 2003-III.

146. *Egunero*, 2003-V-6.

askoren artean —administrazioa tarte—, partidu politikoen parametroak gaindituz eta printzipioz inor bazter utzi gabe ari dena), eta erabaki ahalmena gordeko duen elkarteak da behar bezalako publikotasuna adierazten duen forma¹⁴⁷.

Herri-mugimendua aipatu dugu berrikitan. Gaur egun ez dago modan herri-mugimendua adierazpide modura erabiltzea. Gaur egun, nahiago da “gizarte-mugimendua” esatea, eta gehiago oraindik, “gizarte-ekimena”. Ez dut hemen bereizketa akademiko sakonik egingo. “Pentsamento debote” islatzen dela hor, ordea, bai, esango dut. Nik nire tesian eta liburuan, Euskal Prentsa herri-proiektua dela idatzi nuen, hau da, herri-mugimenduaren proiektua, hain justu. Badirudi, aurretik *herri* hitza dakarren edozerk esparru demonizatua pizten duela gogoan, eta halaxe da neurri batean; “gizarte” kontzeptua, aldiz, samurragoa da. Ez du haren arriskurik. Antagonismoa ezkututzen du; gure kasuan, elebitasuna alde batera utzi eta euskara hutsean landutako euskal kazetaritzak ekarri zuen antagonismoa, Joseba Arregik, gaixtoki, jokabide politikoan ageri zen antagonismora eraman nahi izan zuena (antagonismo politiko hori existitzen den sintoma ageri-agerian larru gorritan utziz).

Talde batek (adibidez, euskarazko prentsa gauzatzeko sortutako taldeak) bere helburuak formulatzeko, lortzeko eta defenditzeko prozesuan erakutsitako ahalmen objektiboa eta subjektiboa dei daiteke mugimendua.

Mugimendua osatzen dutenek, edozein direla bere osagarri espezifikokoak, beti erakusten dituzte ezaugarri berberak: berdintasuna, esku-harmena, autonomia, iniziatiba, zerbitzuaren publikotasuna, justizia-sena, etab. Ez da, baina, ezaugarri horiek edukitze soila, berorren bidez planteatzen dena baizik, mamia. Hau da, kontraesanaren alde ahula ala sendoa planteatzen den ikustea.

Mugimenduak alde ahula agertzen badu, *gizarte-mugimendua* deitzea proposa daiteke; hau da, gizarte-egituraren ahuleziak, gabeziak osatzea duelako helburu, nahiz eta agerpena konfliktiboa izan, gatazkatsua, alegia.

Mugimenduak alde sendoa planteatzen badu, kontraesanaren antagonismoa erakutsiz, berriz, *herri-mugimendua* deitzea proposa daiteke, indarrean dagoen egoera zalantzan jartzea, aldaketa osoa, alegia; iraultza, gizartea inbertitzea, nolabait adierazteko.

Izate beraren bi aldeak dira, esan nahi baita subjektu kolektiboaren bi adierazle direla. Ez du esan nahi, alegia, mugimendua era kartesiarrean bitan bereiz dezakegunik. Ez. Mugimenduaren bi aspektu dira goian adierazitako horiek, eta aldi batean bat erakuts daiteke eta bestean bestea. Mugimendua, berez dago etenik.

Esangura hori gordez, euskararekin lotutako herri-mugimenduak, nahiz eta xede zehatz eta sektorialak erreibindikatuz —hala nola euskarazko hezkuntza, euskarazko prentsa, euskara administrazioan, errepideen seinalizazio euskarazkoak, euskarazko publizitatea, etab.— egoera orokorraren berrikuste eta birplanteaketa aurkeztu bide du; euskaraz egonkortasunez bizi izaterik izango duen herri-antolaketa, lurraldetasun-irizpidean oinarritutako legedia, Euskal Herri euskaldun eleanitz eta burujabea. Horrela uler daiteke, ez bestela, erakunde ofizialekin edo

147. Zalakain, Jexuxmari (1993): *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri-proiektua da*, 264.

semi-ofizialekin —partiduekin ere bai— urte-mordoska honetan izandako gatazka-giroa. Gatazka hori zentzu sendoan mantentzea da herri-mugimenduaren bizitasun-seinale eta bermea. Gizarte-mugimenduaren eta herri-mugimenduaren artean dagoen aldea gizarte-agentearen eta subjektu politikoaren artean dagoen berbera da, funtsean.

Liburuko testu batzuk aldatuko ditut hona, ez baitute inongo gaurkotasunik galdu:

1976an hasitako mugimendu hark, ez ahanzi, bi ezaugarri izan ditu: euskara, eta euskararekin batera, nazioa eraikitzeke xedea. Euskal nazioa, alegia. Konprenitua zuten, euskara eta abertzaletasuna errealtate bateko aurpegi bi direla eta prentsa mailan aplikatu nahi izan zuten. Urtetan, tematsu, egin duten burrukari esker, eduki horretan praktikoki sinisten dutenak bildu dira. Eta saiatu. Horrek erreferentzi politiko nabariak ditu, jakina. Horregatik demonizatu du aginteak. Horrek ekarri du Jaurilaritzak euskal prentsarekiko izan duen jokabidea (...).

Hori besterik ez da herri-mugimendua: kasu honetan, euskara eta abertzaletasuna lagun, herri bat, Euskal Herria, eraiki nahi delako. Kazetal mailan arituz, baina molde horrekin bat etorri eta maila desberdinetan ari diren guztiekin. Kazetal mailako ekimen soziala, aldiz, besterik da, askoz ere apalago bere beharrezkotasunean. Alegia, behin etena lortua, euskal prentsa nazionala abiatua, alor hori lantzeko ekinean datza. Nahikoa du kazetal-ikuspegi hutsez aritzea, euskal alorra ukatzen ez duen bitartean. Ezinezkoa da, ordea, herri-mugimendua izatea abertzaletasunak euskarari ematen dion indar politikorik gabe. Ekimen sozialak (gizarte-mugimenduak) gizarte batek dituen hutsunea, falta zaiona, osatu nahi du. Herri-mugimenduak, herria bera eraiki nahi du. Hauxe da bestearen sorburu. Berori da haren funtsa. Euskara ez da nahikoa. Euskaraz ere sendotu baitaiteke trabatzen gaituen estatua. Eta ez ahaztu, abertzalegoak betidanik nahi izan duela askapen nazionala eta soziala¹⁴⁸.

Eta amaitzeko, beste testu bat, Euskal Prentsak dituen erronkei buruz:

Euskal prentsa mamitu nahian ari den herri-mugimenduak erronka bat du bere aurrean. Legeteria politikoen eta hizkuntzaren garapenean ditu bere mugak. Maila honetan, profesio statusetik eta aukeratutako komunikazio hizkuntzetik datozkion oztopoak gainditu behar ditu. Euskarazko prentsa nahi duten euskaltzaleen guraria ase behar du. Hori da erronka alde batetik.

Baina, bestalde, nazio proiektu bati dagokion (Euskal Herri euskaldun eta burujabeari) prentsa propioa izatea du helburu. Eta ezin daiteke kazetal produktu huts bihurtu. Hori gerta ez dadin, hain kementsu hasitako prozesua azken bururaino eraman behar du. Batetik, bere produktuak merkatuan era konkurrentean kokatu behar ditu, horrek dakarren angustiarekin, beste guztien eremuan ari baita. Bestetik, hasierako kemena mantenduz, prentsa nazional bakarra izatera ailegatu behar du, hots, euskaraz zentratutako prentsa.

Bi posiziotan baskulatuko du. Alferrik da ihes egiten saiatzea. Prestigiozko prentsa egin behar da, ugaria eta ona. Baina prentsa nazional bakarra izateko, beharrezkoa da —ez maila egituratua, baina bai funtsezkoan—, Herri honetako askapen nazionala eta soziala lortu nahi duen mugimendu zabal eta emankorarekin bat egitea. Gurari horixe baita gure egungo egoeran zirkulatzen duen egia, zeinarekin leialki jokatzeko tokatzen zaigun¹⁴⁹.

148. Ibid. 275.

149. Zalakain, Jexumari, aipatutako obra, 277.

Erronka hor dago. Hamahiru urte lehenago ez zegoen esperientzia metatua daukate orain Euskal Prentsako kazetari ekintzaileek. Espainiako estatuak egindako sarraskiak alde on bat ere badu, 15.000 ale saltzetik 25.000 saltzera iritsi da *Egunero*, 5.000 harpidedunetik 11.000ra. *Euskaldunon Egunkaria* itxi dute, baina proiektua bizirik dago, herri-proiektua. Euskarazko Komunikazio Taldeak argi, oso argi duela ematen du, *Berria* egunkaria sustatzeaz gain, duen egitekoa, «komunikabideen sarea indartzea»; eta, ildo horretatik, eskualde mailako egunkariak sortzen lagundu nahi du, prentsa lokalari inoizko bultzadarik sendoena eta erabakiorrena emanez. Ahalegin horren lehen fruitua *Oarsoaldeko Hitza* da —aurretik zetorren *Tolosaldeko Hitza*-ren segida—, eta antzeko proiektuak lantzen jarraituko du tokian tokiko, eskualdeetako, euskara-elkarteeekin eta aldizkariekin batera¹⁵⁰. «Euskarazko autozentratutako» eta «prestigiozko» prentsa egitea da helburua —«kioskoko prentsa onena», esango luke Martxelo Otamendik—. Ez ahaztu horixe izan dela, hamarkadaz hamarkada, 1976an abiatuz, Euskal Prentsa izeneko ekimenak bultzatu nahi izan duen herrri-proiektua. Proiektu horren ibilbidea erakutsi nahi izan dut artikulu honetan. Akademikoak “euskal komunikazio esparrua” eratu eta indartu behar dela errepikatzen ari dira aspaldi, telebistekin eta irratiekin bat. Helburua interesgarria izateaz gain, egingarria da, baldintza batzuk betetzen badira. Paperezko munduak egin duen bidea ez dadila alferrikakoa izan helburu horren erdiesteko.

150. *Berria*, 2003-VI- 21. “Berria” izeneko gehigarriaren VI. eta VIII. orrialdeak batik bat.